

2020ko abendua

ARABAKO HIZKUNTZA- ANIZTASUNAREN MAPA

Datuen azterketa

Immigrazioko biztanleriaren
jatorriaren arabera hurbilketa



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Egileak: Xabier Aierdi zuzendaria; Belen Uranga, Maialen Iñarra, Isabel Godinez (Soziolinguistika Klusterra)

Aholkularitza teknikoak: Gislán

2020ko abendua

AURKIBIDEA

1	SARRERA	4
	Ohar metodologikoa	5
2	BIZTANLERIAREN JATORRIA ARABAN	6
2.1	Giza taldeak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera	6
2.2	Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera	9
2.3	Jatorri atzeritarreko biztanleria, sexuaren arabera	10
2.3.1	Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa	10
2.3.2	Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera	11
2.4	Jatorri atzeritarreko biztanleria, adinaren arabera	14
3	ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA, JATORRIAREN ARABERA	16
3.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen jatorri-estatuak	17
3.2	Emari handieneko 20 jatorri-estatuak	18
3.3	Hiztun-kopuru txikiko jatorri-estatuak	19
3.4	Espainiako estatuan jatorria dutenak	21
3.5	Arabako hizkuntza-aniztasuna	22
3.5.1	Hizkuntzak	22
3.5.2	Arabian 500 hiztun baino gehiago izan ditzaketen hizkuntzak	26
4	HIZKUNTZA-KOMUNITATE NAGUSIEN MAPAK	27
4.1	Arabiera eta amazigera	30
4.1.1	Jatorria: Maroko	30
4.1.2	Jatorria: Aljeria	31
4.2	Portugesa	32
4.2.1	Jatorria: Portugal	32
4.2.2	Jatorria: Brasil	33
4.3	Errumaniera (Errumania)	34
4.4	Urdu eta Punjabera (Pakistan)	35
4.5	Frantsesa (Frantzia)	36
4.6	Nigeria, Txina, Ukraina eta Senegal jatorria duten biztanleen banaketa	37
4.7	Gaztelania ofiziala duten jatorri-Estatuak	38
5	ESKUALDE MAILAKO AZTERKETA	39

5.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen banaketa, eskualdeetan	39
5.2	Hizkuntza-komunitateen intentsitatea, eskualde bakoitzean.....	41
5.2.1	Arabako Lautada	41
5.2.2	Kantauri Arabarra.....	42
5.2.3	Errioxa Arabarra	43
5.2.4	Gorbeia Inguruak	44
5.2.5	Arabako Ibarrak	45
5.2.6	Arabako Mendialdea	46
5.3	Arabako eskualdeetako hizkuntza-aniztasuna laburbilduz	47
5.4	Eskualde mailako Hizkuntza-aniztasun handia	49
6	UDALERRI MAILAKO AZTERKETA	50
6.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen dentsitatea udalerrietan	50
6.2	Hizkuntza-komunitateen intentsitatea, dentsitate handieneko udalerrietan	54
6.3	Maroko, Errumania eta Portugal jatorria duten hizkuntzak udalerri	56
7	ONDORIOAK.....	61
7.1	Jatorri atzeritarreko biztanleen ezaugarri demografikoak.....	61
7.2	Arabako hizkuntza-komunitateak	62
7.3	Azken hausnarketa. etorkizuneko erronka	64
	BIBLIOGRAFIA	66
	ERANSKINA. Biztanleriaren jatorria. Eskualdeak eta udalerriak. Araba 2019.....	67

1 SARRERA

Arabako Hizkuntza-aniztasunaren mapa Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburutzaren eskariz egindako egitasmoa da.

Proiektu honen helburua euskara, gaztelania eta ingelesa ez diren *Arabako Hizkuntza-aniztasunaren mapa* osatzea izan da. Izan ere, hiru hizkuntza horiek hizkuntza-aniztasunaren inguruko tratamendu berezitua eskatzen dute, euskarak eta gaztelaniak euren izaera ofizialarengatik, eta ingelesak hezkuntza-sistema formalean eta ez formalean duen pisuagatik.

Dokumentu honetako informazioa honako ataletan antolatu da: sarreran azterketaren ohar metodologikoa eskaintzen da. Bertan azpimarratu da gaur egun ez dagoela hitz egiten diren hizkuntzen inguruko datu-bilketa formal eta protokolorik, eta, beraz, azterketa honetan HIPOTESI mailako hizkuntzen presentzia aurreikusiko dela, beti ere, ikerketa kualitatiboek baieztatu beharreko hipotesiak direlarik. Bigarren kapituluan, Arabako biztanleriaren ezaugarriak deskribatuko dira, arreta jarritzaz azken urteetako immigrazioren joera orokorretan, esate baterako, jatorri atzeritarreko biztanleriaren pisan eta ezaugarrietan (sexuaren eta adinaren arabera datuak aztertuz, besteak beste). Hirugarren kapituluan, hizkuntza-aniztasunaren sortzaile den jatorri-estatuen banaketa aztertu

da, izan ere, jatorri horren arabera aurreikus daiteke hizkuntza-aniztasuna ez dela homogenea, ez Arabako lurralde osoan banaketari dagokionean, ez eta hiztun-kopuruari dagokionean ere.

Hala, badira 20 jatorri-estatuetako hiztunak jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 81 osatzen dutenak. Ondoren azalduko den bezala, jatorri-estatu horietako bederatzi hizkuntzek 500 baino hiztun gehiago izan ditzakete Araban.

Bestalde, badira 140tik gora jatorri-estatutako biztanleak, biztanleria migratzailearen % 19 osatzen dutenak. Datu horren arabera, ehun hizkuntza baino gehiagok izan dezakete presentzia Araban.

Hizkuntza-aniztasuna aztertzean kontuan izan ditugu, aldi berean, Espainiar Estatuan ofizial diren beste hizkuntzen presentzia adieraz dezaketen datuak ere.

Txostenaren laugarren eta bosgarren kapituluetan hizkuntza-komunitate handien eskualde-mailako kokapena egin da, eta, jarraian, seigarrenean, udalerri-mailako azterketa laburra. Azkenik, ondorioen atalarekin eman zaio amaiera txostenari.

OHAR METODOLOGIKOA

Arestian edierazi bezala, gaur egun, ez dago biztanleriaren hizkuntza-datu zehatzak biltzen dituen prozedura formal edo protokolorik, EUSTAT-ek euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain. Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Arabako biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, beraz, ikerketa kualitatiboak ezinbestekoak dira. Ikerketa horiek egin bitartean, eskuragarri dauden datuek hizkuntza-aniztasunaren fenomenora soilik hipotesi-mailan hurbiltzea ahalbidetzen dute, eta hala egin da txosten honetan.

Ikerketa kualitatiboen esparruan ez dira asko orain artean egindako lanak, baina oso kontuan izango dira txosten honetan, besteak beste honakoak: Ahotsak, 2016; Ikuspegi (Uranga et al. 2008), (Aierdi eta Uranga 2018), Ikuspegi (2019, 2020); Emakunde, 2012; Fernández Aragón et al., 2017 eta Aztiker, 2015.

Lan honetan erabilitako datuen iturri nagusia EUSTATEk argitaratzen dituen *Biztanleriaren udal-errola* izan da, kasu honetan 2020koak datu orokorren kasuan, eta 2019 urtekoak hizkuntza-komunitateen eta eskualde eta udalerri-mailako datuen azterketarako.

Garrantzi berezia du kontuan izateak jatorri atzeritarreko biztanleztat honako hiru ezaugarriren bat duten biztanle guztiak aintzat hartu direla: a) *Espainian jaio eta atzeritarra*¹ izatea; b) *atzerrian jaio eta espainiarra*, eta c) *atzerrian jaio*

¹ *Atzerria* kategoria Espainia kanpoko estatuei esleitzen zaie azterketa honetan; *atzeritarra* atzerriko nazionalitatea duen biztanlea da, eta *espainiarra* Estatu espainiarreko nazionalitatea duena.

eta atzeritarra izatea. Hori horrela, eta ikerketa kualitatiboek berresten dutenaren baldintzapean, azterketa honetan erabili diren hipotesiak ondorengoak dira:

- Jatorri atzeritarreko biztanleek jatorri-herrialdeetako hizkuntza ofizialak hitz egiten d(it)u(z)te.
 - Espero izatekoa da hizkuntza ofizial horretan² hitz egingo dutela, jatorrizko hizkuntza beste bat(zuk) d(it)u(z)tenen kasuetan ere. Baina, era berean esan behar da, ez dela beti horrela izaten, biztanle guztiak ez baitute beti estatuaren hizkuntza ofiziala hitz egiten.
- Jatorrizko herrialdeetan hizkuntza ofizialez gain hitz egin de(it)zaketen hizkuntza(k) ere identifikatu behar d(ir)a.
 - Hizkuntza horien identifikazioan, dagoeneko hizkuntzen presentzia dokumentatuta dituzten hizkuntzak hartu dira kontuan³.
- Jatorri atzeritarreko biztanleei erreparatzeaz gain, gaztelaniaz gain beste bat hitz egin dezaketen Espainiako jatorrizko erkidegoetako biztanleen hizkuntzak ere kontuan izango dira.

² Estatu askotan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dago, eta euren presentzia lurraldean ez da ezinbestean homogeneoa. Beraz, jatorri lurralde bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera hitz egingo dute hizkuntza batzuk edo beste batzuk Arabara etorritako biztanleek.

³ Uranga et al. 2008, Ikuspegi 2015, Topagunea 2016, Emakunde 2018.

2 BIZTANLERIAREN JATORRIA ARABAN

2.1 GIZA TALDEAK, JAIOTERRIAREN ETA NAZIONALITATEAREN ARABERA

Arabako hizkuntza-aniztasunaren hurbilketarako, biztanleriaren jatorria aztertu da, bereziki bi datu gurutzatuz: biztanleriaren jaiotze-lurraldea eta biztanleriaren nazionalitatea.


Hala, datuen azterketarako **lau giza talde** bereizi daitezke:

1. *taula. Biztanleriaren giza multzoak, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera*

Estatu Espainiarrean jaioak Espainiar nazionalitatea →	+	-
+	a) Estatu Espainiarrean jaio eta nazionalitate espainiarra	b) Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea
-	c) Atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra	d) Atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea

Hizkuntza-aniztasuna aztertzeko **jatorri atzerritarreko biztanleria** aztertuko da. Kontuan izan behar da, beraz, ikerketa honetan jatorri atzerritarreko biztanleak b, c eta d taldeko biztanleak direla, alegia, *Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea* dutenak, *atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra* dutenak eta *atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea* dutenak.

1. **grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera. Araba, 2020 (%)**



- *Espainian jaio eta nazionalitate espainiarra* dutenek biztanleriaren ia % 85,9 osatzen dute, 286.911 pertsona.

- **Jatorri atzerritarreko biztanleria** osagai atzeritarren bat duten hiru giza taldeko biztanleek osatzen dute, hain zuzen b, c eta d taldeko **47.029** biztanleek. Horiek biztanleria osoaren **% 14,1** osatzen dute.

- Badira bertan jaio arren espainiar nazionalitate ez duten biztanleak (b taldea): 4.358 pertsona dira; bertan jaiotako guraso atzeritarren seme-alabak dira.

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020). Grafikoak SLK.

2. **grafikoa. Biztanleria, jaioterriaren eta nazionalitatearen arabera. Araba, 2020 (Absolutuak)**




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020). Grafikoak SLK.

- Atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea dutenak 14.613 biztanle dira (c taldea).

- Azkenik, jatorri atzeritarren artean gehienak atzerrian jaio eta espainiar nazionalitate ez duten 28.058 biztanle dira (d taldea).

Era berean, interesgarria da jakitea Arabako populazioak EAEko biztanleriaren % 15 hartzen duela, eta ehuneko hori zerbait handiagoa dela jatorri atzeritarreko biztanleriaren kasuan⁴: Euskal Autonomia Erkidegoan 259.413 jatorri atzeritarreko biztanle dira, eta horietatik Araban 47.029, EAEkiko % 18,1.

3. **grafikoa. Biztanleria osoa eta jatorri atzeritarrekoa EAEarekiko. Araba 2020 (%)**



2. **Taula. Biztanleriaren osoa eta jatorri atzeritarrekoa Araba, EAE 2020 (Abs.; %)**

		EAEarekiko %
Biztanleria osoa ARABA	333.940	15,0
Biztanleria osoa EAE	2.220.504	
Jatorri atzeritarreko biztanleria ARABA	47.029	18,1
Jatorri atzeritarreko biztanleria EAE	259.413	


Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2020). Grafikoa SLK.

⁴ Hemendik aurrera, ikerketa honetan *Jatorri atzeritarreko biztanleria* i erreferentzia egiteragkoan aintzat hartuko dira hiru ezaugarri hauetakoren bat dutenak: b) *Espanian jaio eta atzerriko nazionalitatea*, c) *atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra* eta d) *atzerian jaio eta atzerriko nazionalitatea*.

2.2 JATORRI ATZERITARREKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA

Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera goranzkoa da: 2000. eta 2020. urte bitartean 40.000 biztanle baino gehiagoko gehikuntza izan da, alegia, biztanleria osoaren % 2,2tik % 14,1era igaro da.

4. *Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera. Araba, 2007-2020 (Abs.)*



5. *grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera. Araba, 2007-2020 (%)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2020). Grafikoa SLK.

3. *taula. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera. Araba, 2007-2020 (Abs.; %)*


	2000		2004		2008		2012		2016		2020	
Jatorri atzeritarra	6.307	2,2	15.202	5,1	27.596	8,9	38.100	11,8	37.420	11,5	47.029	14,1
Biztanleria osoa	286.497		295.905		309.635		322.557		324.126		333.940	

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2020). Taula SLK.


2.3 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, SEXUAREN ARABERA

2.3.1 Datu orokorrak: migrazioaren feminizazioa

6. *grafikoa. Biztanleriaren jatorria, sexuaren arabera. Araba, 2020 (%)*



7. *grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren banaketa, sexuaren arabera. Araba, 2020 (%)*




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020). Grafikoa SLK.

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren eta Espainiako jatorria duen biztanleriaren artean ez dago alderik sexuaren banaketan (Espainiar jatorriko emakumeak % 50,7, atzerritar jatorrikoak % 51); aldea, nabarmenagoa da, ordea, jatorri atzerritarreko ezaugarri desberdinei erreparatuz gero. Horrela, atzerrian jaio eta Espainiako nazionalitatea dutenen populazioaren artean emakumezkoak gehiago dira (% 54,8) gizonezkoak baino.

2.3.2 Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera

XXI. mendeko atzeritar jatorriko biztanleriaren artean gizonezkoak gehiago izan dira emakumezkoak baino Araban 2016. urtera arte. Hortik aurrera, ordea, emakumezkoen presentzia areagotuz joan da, eta 2020an 900 inguru emakumezko gehiago dira gizonezkoak baino.

8. *grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Araba, 1999-2020 (Abs.)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020). Grafikoa SLK


4. *taula. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera. Araba, 2007-2020 (Abs.; %)*

	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2020
Gizonezkoak	2.322	3.159	5.711	8.063	10.797	14.730	18.341	20.173	18.772	18.748	20.398	23.055
Emakumezkoak	2.435	3.148	5.185	7.139	9.735	12.866	15.956	17.927	17.978	18.672	21.003	23.974
Guztira ARABA	4.757	6.307	10.896	15.202	20.532	27.596	34.297	38.100	36.750	37.420	41.401	47.029
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Gizonezkoak	48,8	50,1	52,4	53,0	52,6	53,4	53,5	52,9	51,1	50,1	49,3	49,0
Emakumezkoak	51,2	49,9	47,6	47,0	47,4	46,6	46,5	47,1	48,9	49,9	50,7	51,0
Guztira ARABA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2020)

Jatorri atzeritarreko biztanleriaren artean sexuaren arabera banaketak oso desberdinak dira jatorri-estatuaren arabera. Esate baterako, Amerikar jatorria duen biztanleriaren artean 3.206 emakume gehiago dira gizonezkoak baino. Aldiz, Afrika, Asia eta Europa jatorrikoen artean gizonezkoak gehiago dira nabarmen emakumezkoak baino: Afrikan jatorria dutenak 1.842 gizonezko gehiago, Asian jatorria dutenak 421 gehiago, eta Europako jatorrikoak 321 gizonezko gehiago.

9. **grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleen feminizazioa (emakume gehiago gizon baino), kontinenteen arabera. Araba, 2019 (Abs.)⁵**




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

Zehazki, azken urteetan sendotu diren Hego eta Erdialdeko estatuetatik Arabara datorren biztanleria nabarmenki femeninoagoa da. Horrela, Kolonbia, Paraguai eta Brasiletik datozen biztanleen artean 400 baino gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino; 800 baino gehiago Kolonbiaren kasuan. Aldiz, alde handiarekin dira gehiago gizonezkoak Marokotik eta Pakistanetik bertaratu diren biztanleak.

⁵ Hemendik aurrerako datuak EUSTAT 2019koak izango dira.

10. *grafikoa. Jatorri atzerritarreko biztanleen feminizazioa (emakume gehiago gizon baino), herrialdeen arabera⁶. Araba, 2019 (Abs.)*




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

⁶ Emakumezkoen eta gizonezkoen aldea 20 pertsona baino gutxiagokoa den herrialdeak ez dira ageri grafikoan.

2.4 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLERIA, ADINAREN ARABERA

Hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik jatorri atzerritarreko biztanleriaren adinaren arabera banaketa zehaztea interesgarria da eskaera eta behar berezituak ager daitezkeelako, bai haurren kasuan, eta baita gazteen kasuan ere.

11. *grafikoa. Biztanleriaren adin-banaketa jatorriaren arabera. Araba, 2019 (%)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

5. *Taula. Biztanleriaren adin-banaketa jatorriaren arabera. Araba, 2019*

	Espainiar jatorria		Jatorri atzerritarra		GUZTIRA	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
0-16	47.825	86,3	7.566	17,1	55.391	100,0
17-24	17.728	77,7	5.081	11,5	22.809	100,0
25-44	67.218	77,4	19.648	44,4	86.866	100,0
45-64	87.188	89,3	10.394	23,5	97.582	100,0
>65	67.371	97,8	1.530	3,5	68.901	100,0

- Arabako biztanleriaren artean 0-16 urte bitartekoen artean % 86,6 Espainiar jatorrikoak dira eta % 13,7 jatorri atzeritarrekoa. Hala, oso kontuan hartzekoa da badirela Araban eskola-adinean dauden 7.566 biztanle. Kasu horretan, arreta nagusia eskola-inguruko eta aisialdiko kudeaketan jartzea ezinbestekoa da, esparru hori baita gizartean integrazteko biderik eraginkorrena (Barquín, Madinabeitia, eta Alzola 2012, 104).
- Jatorri atzeritarreko biztanleriaren proportzio hori ordea, nabarmen igotzen da 17-24 urte bitartekoen artean: % 22,3 da ehunekoa adin horietan eta 5.000 lagun baino gehiagoko taldea osatzen dute.
- Ehuneko bera hartzen dute 25-44 arteko biztanleek: %77,4 Espainiako jatorria dutenak eta %22,6 dira jatorri atzeritarrekoen ehunekoa, populazio horrek lan-merkatuan integrazteko isla izanik (Aierdi eta Uranga 2018, 15). Kontuan izan gainera, adin horietakoak direla jatorri atzeritarren % 44,4 (ikus 5. Taula).
- Aldiz, 45-64 eta 65 urtetik gorako ehunekoa txikiagoa da jatorri atzeritarreko biztanleriaren artean, neurri batean behintzat, migrazioaren fenomeno berria eta gaztea delako, adin horretan eragina nabarmentzeko.

Laburbiltzeko, bi ideia nagusi azpimarratu behar dira. Lehen, jatorri atzeritarreko haurren eta gazteen presentzia oso esanguratsua dela Araban, eta lan-garaiko biztanleria aktiboaren proportzioa ere oso altua dela.

3 ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA, JATORRIAREN ARABERA

Arabako hizkuntza-aniztasuna aztertzeko herrialde horretako biztanleriaren jatorria begiratzuz, bi aldagai kontuan izan dira: alde batetik, jatorri atzeritarreko biztanleak, eta, bestetik, Espainiako Estatuan jaio eta Araban bizi direnak.


Atal honetan, datuok honako antolaketaren arabera aztertu dira:

- 3.1 atalean, emari handiena duten 20 jatorri-herrialdeen taldea aztertuko da. Izan ere, horiek osatzen dute jatorri atzeritarreko biztanleen gehiengo zabala (% 81), eta bertan dute jatorria etorri berri diren hiztun-kopuru handieneko 10 hizkuntza inguruk.
- 3.2 atalean, gainerako jatorri-herrialdeen ezaugarriak aztertuko dira, bertan nabarmendu daitekeelako gainerako hizkuntza-aniztasun handiaren jatorria.
- 3.3 atalean, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egiten duten espainiar estatuko beste erkidegoetan jaio eta Araban bizi direnen hizkuntza-aniztasuna.
- 3.4. atalean, Arabako hizkuntza-aniztasunari buruzko laburpena eskainiko da, bertan bizi direnek hitz egin dezaketen balizko hizkuntza-zerrenda osatuz, hau da, Arabako hizkuntza-komunitate potentzialak identifikatuz.

3.1 JATORRI ATZERRITARREKO BIZTANLEEN JATORRI-ESTATUAK

Jatorri atzerritarreko biztanleek 151 estatutan dute euren jatorria; horietatik % 81ek 20 estatutan eta beste % 19ak 131 estatutan.

12. *grafikoa. Jatorri atzerritarreko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusien eta gainerakoen banaketaren arabera. Araba, 2019 (Abs.; %)*



Beraz, Arabako hizkuntza-aniztasuna azaltzeko lehen bereizketa egin daiteke, aurreikus daitekeelako 20 jatorri horietako biztanleen hizkuntzek izango dutela bereziki pisuzko presentzia Arabako herrialdean.

Baina, horiekin batera, gainerako 130 herrialde baino gehiagotan jatorria duten biztanleen artean hizkuntza-aniztasun oso handia aurreikus daiteke.


Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

3.2 EMARI HANDIENEO 20 JATORRI-ESTATUAK

Hogei jatorri-estatu nagusietako hizkuntzek hiztun-kopuru handienak izan ditzakete Araban. Jatorri horietako biztanleek atzerriarren artean % 81 osatzen dute.

Emari gehien duten estatuak Maroko eta Kolonbia dira (7.500 eta 5.400 biztanle inguru, hurrenez hurren). Ondorengo estatuek 2.500 biztanle azpiko kopuruak dituzte, nolanahi ere, guztietan, 500 gainera.

13. **grafikoa. Jatorri atzerriarrekoko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Araba, 2019 (%)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

6. **taula. Jatorri atzerriarrekoko biztanleak, 20 jatorri-estatu nagusien arabera. Araba, 2019**


Ordena	Jatorri-estatuak	Abs.	%
1	Maroko	7.547	17,1
2	Kolonbia	5.420	12,3
3	Aljeria	2.545	5,8
4	Nigeria	2.019	4,6
5	Errumania	1.713	3,9
6	Pakistan	1.687	3,8
7	Portugal	1.551	3,5
8	Ekuador	1.522	3,4
9	Brasil	1.458	3,3
10	Paraguai	1.377	3,1
11	Dominikar Errepublika	1.351	3,1
12	Peru	1.319	3,0
13	Venezuela	1.114	2,5
14	Txina	1.089	2,5
15	Argentina	820	1,9
16	Bolivia	815	1,8
17	Frantzia	706	1,6
18	Kuba	625	1,4
19	Ukraina	588	1,3
20	Senegal	531	1,2
	20 Jatorri nagusietakoak	35.797	81,0
	Gainerako jatorritakoak	8.422	19,0
	GUZTIRA	44.219	100,0

3.3 HIZTUN-KOPURU TXIKIKO JATORRI-ESTATUAK

Arabako jatorri azterritarreko biztanleek lehen hogeitatu estatu-emari nagusietan dute jatorria. Baina horiez gain, beste 132 estatuetan ere badute jatorria, hain zuzen, lurralde horietan jatorria dutenek immigratutako populazioaren % 19 osatzen dute.

Lurralde horietatik 100 eta 500 arteko biztanle-kopuruak dituzte 24tan. Horien artean, nabarmentzekoak dira Georgia, Alemania, Mauritania eta Txile 400 biztanle baino gehixeago dituztenak, eta Ghana, Bulgaria, Nikaragua eta Moldavia herrialdeetakoak, kopuru hori baino gutxiago izan arren, hiztun-kopuru esanguratsua izan dezaketena, alegia, 300 eta 400 bitartekoak.


14. **grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 100 eta 500 biztanle bitarteko emaria duten jatorri-estatuaren arabera. Araba, 2019 (Abs.)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

Baina estatu gehienek 100 biztanle baino gutxiagoko emaria dute (**15. grafikoa**). Dibertsitate hori da, beraz, gizartearen hitzun-kopuru txikiko hizkuntza-aniztasun oso handia eratzten dute.


15. grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, 100 biztanle baino gutxiagoko emaria dutenak. Araba, 2019 (Abs.)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

3.4 ESPAINIAKO ESTATUAN JATORRIA DUTENAK

16. *grafikoa. Estatu espainiarreko jatorria duen biztanleria jaiotzaren arabera. Araba, 2019 (Abs.)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

Arabako hizkuntza-aniztasunaren alderdi aipagarria da, zalantzarik gabe, gaztelaniaz gain jatorrizko beste hizkuntza duten Espainiar estatutik bertaraturiko biztanleria.

Hala, aintzat hartzekoak dira Galizian jaio eta Araban bizi diren 5.076 biztanleak eta Katalunia, Valentzia edota Balear Uharteetan jaiotako 2.775 biztanle arabarrak: hala, pentsatzekoa da galizierak eta katalanak ere presentzia esanguratsua izan dezaketela Araban.

7. *Taula. Estatu espainiarreko jatorria duen biztanleria jaiotzaren arabera. Araba, 2019*

	Abs.	%
Araba	181.517	54,7
Gipuzkoa	11.009	3,3
Bizkaia	23.333	7,0
Nafarroa	4.733	1,4
Galizia	5.076	1,5
Katalunia, Valentzia, Balear Uharteak	2.775	0,8
Estatu espainiarreko gainerakoak	63.141	19,0
Estatu espainiarretik kanpo jaioak	39.965	12,1
GUZTIRA	331.549	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

3.5 ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA

3.5.1 Hizkuntzak

Atzeritar jatorriko biztanleriaren jatorri-estatuen arabera hizkuntza-aniztasuna deskribatzeko kontuan izan behar da biztanle horien artean leku bereziki handia hartzen duela jatorri estatuan gaztelania ofiziala dutenek⁷. Pertsona horietako askok ez dute euskara ikasteko beharrik ikusten oro har, eta ez dute hartara hizkuntza-arazorik bizitzen, Emakundek egindako inkestaren arabera (Oleaga 2012a, 187–188), eta beraz, pentsatzekoa da arreta berezia eskatuko duela bertako bi hizkuntza ofizialen arteko normalizazio-prozesuan integratzeko ahaleginean.

- Bestalde, azpimarratu behar da jatorri horietako biztanle zenbaitek, gaztelaniaz gain, beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzaketela, esate baterako, aimara, guarania, mapudungum, ketxua edota kitxua (Uranga et al. 2008, 21), edota guanbiera, kektxiera, mixtekera, nahuatlera, nasa yuwe, uru chipaya, uru uchumataqo, yukatakera, yarakare, (Ahotsak.eus 2016). Aldi berean, ez da baztertu behar biztanle horietako batzuk, jatorrizko hizkuntzaren erabilera normalizatua dutelarik, gaztelaniaren ezagutza mugatua izan dezaketela⁸.

Gaztelania

- Jatorri atzeritarreko populazioaren gehiengo handiaren hizkuntza nagusia da; Jatorri atzeritarreko % 36,8 osatzen dute: 16.271 pertsona.
- Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan dute jatorria: Kolonbia, Bolivia, Paraguai, Nikaragua, Venezuela, Ekuador, Peru, Argentina, Honduras, Kuba, ...

Erdi eta Hego Amerikako jatorrizko hizkuntzak

- Kontuan izatekoa da gaztelaniaz gain biztanleria horren artean Amerikako jatorria duten beste hizkuntza batzuk ere hitz egin dezaketela.
- Honakoak izan daitezke, besteak beste: aimara, guarani, mapudungun, ketxua, kitxua, guanbiera, kektxiera, mixtekera, nahuatlera, nasa yuwe, uru chipaya, uru uchumataqo, yukatakera, yarakare

⁷ Ikus txosten honen hasierako ohar metodologikoan, jatorri-estatuen hizkuntza-aniztasunaren ezaugarriak aztertzeke ikerketan erabilitako irizpideak.

⁸ Elkarrizketa pribatua Silvia Carrizo adituak eskaintako informazioa (publiko egiteko baimenarekin idatzia).

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

Beraz, jatorri-estatuko hizkuntza ofiziala(k) kontuan izanda, eta jatorri horietako beste zenbait hizkuntzaren presentzia esanguratsua izan dezaketela aurreikusiz, honakoak izango dira Araban hitzun-kopuru handiena duten hizkuntzak:

Arabiera, amazigera	Maroko eta Aljeriako populazioak hizkuntzak partekatu ditzakete, ñabardurak ñabardura. Immigrazioko populazioaren % 22,9 osatzen dute (10.092 lagun inguru).
Portugesas	Portugal eta Brasil jatorria duten pertsonak dira. % 3,5 eta % 3,3 hurrenez hurren; 3.009 biztanle guztira.
Jorubera, igboera, hausa, ingelesa	Nigerian jatorria dutenak: 2.019 biztanle (% 4,6)
Errumaniera	Jatorri atzerritarreko biztanleriaren 1.713 biztanle (% 3,9)
Urduera, punjabera eta ingelesa	Pakistanen jatorria dutenak: 1.687 biztanle (% 3,8)
Mandarin txinera eta kantonera	Txina jatorria dutenak: 1.089 pertsona (% 2,5)
Frantsesa (nagusiki), bretoiera, okzitaniera, euskara	Jatorria Frantzian (706 biztanle) Maroko, Aljeria eta Senegaletik datozen gehientsuenek ere frantsesez hitz egiten dute.
Ukrainera, errusiera	Ukraina jatorria dutenak: 558 biztanle (% 1,3)
Wolofera, fula, serere, jola, mandinka... eta frantsesa	Senegalen jatorria dutenak: 531 biztanle (% 1,2)

Biztanle-kopuru txikiagoko hizkuntzen artean 100 eta 500 hiztun inguru izan ditzaketen hizkuntzak badira, esate baterako, Europako zenbait estatutako ofizialak (alemana, italiara, errusiera...) eta, beste askotan, 100 hiztun baino gutxiago izan ditzaketenak.

Ondoren, jatorri-kontinente bakoitzeko jatorrietatik Arabara etorri ei diren hizkuntzen behin-behineko hurbilketa eskaintzen da, kontuan izanda dagoeneko iturriek ezagutzera eman dituztenak⁹ (Ahotsak.eus 2016), (Shershneva eta Fernández Aragón 2017), (Uranga et al. 2008).

EUROPA

Albaniera, alemana, armeniera, azerbaijanera, bielorrusiera, bulgariera, daniera, errusiera, esloveniera, estoniera, finlandiera, georgiera, greziera, hungariera, italiara, kroaziera, letoniera, lituaniera, moldaviera, norvegiara, poloniera, serbiera, suediera, txekiera, ukrainera,

Lurralde horietan hizkuntza minorizatuak izan daitezkeen beste batzuk ere izan daitezke (horietako zenbait ofizialak izan arren) erromantxea, faroeera, flandesera, frisia, galesera edota eskoziako edo irlandako gaelikoa, besteak beste.

AMERIKA

Aimara, guambira, guaraniera, hatxa kuin (kaxinawa), ingelesa, kaqchikelera, kektxiera, ketxua, kitxua, mapudungun, mixtekera, nahuatlara, nasa yuwe, uru chipaya, yukatekera, yurakare

Amerikako jatorriko hizkuntzen presentzia kontuan hartzekoa da ez soilik Erdi eta Hego Amerikan, baizik eta gerta daiteke Ipar Amerikako jatorrizko herrietako hizkuntzek ere presentzia izatea Araban, nahiz eta ez den dokumentatu oraindik.

⁹ Kontuan izan behar da bi lan horiek Euskal Herri osoan identifikatu dutela hizkuntza horien presentzia, beraz, ezin da ziurtasunez esan Araban hitz egiten direnik; horregatik, soilik hipotesi modura planteatzen da zerrenda.

AFRIKA

Akanera, amarhera, bozoera, bubiera, diolera, edoera, fang, fangterafula, ga, ghomala, Guinea gunera, Bissauko kreolera, hausa, igboera, ingeles kreolera, jola, jorubera, kikongo, kombo, lingala, mandinkera, manjakera, mankanyera, mongoera, moorea, pulaarera, sekiera, serer, soninkera, soninkera, sothoera, susu, swahili, swaziera, tamazight, turkiera, wolofera, xhosa...

Arreta bereziarekin begiratu behar da, Kontinente horretako estatu gehienek Europako jatorria duten hizkuntzak dituztela ofizialak (ingelesa, frantsesa, portugesa, nederlandera edo gaztelania). Lurralde horietan jatorria duten biztanleek maiz hizkuntza ofizial horietan hitz dute, eta, horiekin batera, baita jatorrizko edo hurbileko lurraldeko edota herriko beste hizkuntza batzuk ere.

ASIA

Asamera, bengalera, birmaniera, bodoera, hindi, indonesiera, japoniera, kazakhera, koreera, Malaysiera, mongoliera, nepalera, paxtunera, persiera, punjabera, serpa, thai, tibetera, urdu, vietnamera, besteak beste

OZEANIA


Maoriera, fijiera, tagalo, samoera...

Aurreko ataletan aurkeztutako edukia laburbiltze aldera, eta ondorio moduan, bertako biztanleriaren jatorria aintzat hartuta Araban presentzia izan dezaketen hizkuntzak zerrendatu dira ondorengo atalean.

3.5.2 Araban 500 hiztun baino gehiago izan ditzaketen hizkuntzak

- Marokotik eta Aljeriatik etorritako hiztun potentzialak kontuan hartuz, **arabierak, amazigerak** presentzia esanguratsua izan dezake Araban. Horrez gain, **frantsesa** ere horietako askok hitz egiten dute.
- Espainiar estatuko gaztelania ez beste hizkuntza duten populazioa ere kontuan hartzekoa da, esage baterako **galegoaren eta katalanaren** hizkuntza-komunitateak.
- Portugalen eta Brasilen jatorria duen biztanleriak **portugesez** hitz egiten dute.
- Hiztun potentzial askoko Arabako hizkuntzen artean daude honakoak ere: 1.000-2.000 hiztun potentzialeko **yorubera, igboera, hausa, errumaniera, urdu edota punjabera, mandarin txinera edota kantonera** hizkuntzak, batetik; eta 500-1.000 hiztun potentzialeko **frantsesa, ukrainera, wolofera, fula, serer...** hizkuntzak, bestetik.
- Azkenik, ez dira ahaztu behar jatorri-estatuetakoa hizkuntza ofizialak ez direnak, horiek presentzia txikiagoa izanik ere.
- Leku eta presentzia berezia dute **gaztelania** lehen hizkuntza duten jatorri atzerriarrekoko biztanleek ere. Biztale horiek gaztelaniaz gain Amerika jatorriko beste hizkuntza batzuk ere hitz egin dezakete..

17. **grafikoa. Euskal Herritik kanpoko jatorria dutenen hizkuntza-aniztasuna eta gaztelania jatorrian ofiziala duten biztanleak (500 hiztun potentzial baino gehiago). Araba, 2019 (Abs.)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

4 HIZKUNTZA-KOMUNITATE NAGUSIEN MAPAK

Aurreko atalean, Arabako biztanleek hitz egin ditzaketen hizkuntzak identifikatu dira haien jatorria aintzat hartuta. Atal honetan, hizkuntza-komunitate nagusi horiek Araban barrena non kokatzen diren azalduko da. Hasteko, ordea, gogora dezagun zein den biztanleriaren banaketaren mapa Arabako eskualdeetan:

- Araban, hiriburuak eta bera biltzen duen eskualdeak herrialde osoko populazioaren hiru laurden baino gehiago elkartzen ditu; hori du ezaugarriarik nagusia.
- Jatorri atzeritarreko biztanleak Arabako eskualdeetan zehar nola barreiatzen diren aztertuta (2.mapa), banaketa hori bat dator eskualde bakoitzaren pisu demografikoaren hurrenkerarekin:

	Abs.	Biztanleria osoarekiko (%)
Arabako Ibarrek	5.628	1,7
Arabako Lautada	268.614	81,0
Arabako Mendialdea	2.899	0,9
Errioxa Arabarra	11.201	3,4
Gorbeia Inguruak	8.772	2,6
Kantauri Arabarra	34.435	10,4
GUZTIRA	331.549	100,0

1. mapa. Biztanleria osoaren banaketa. Arabako eskualdeak 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

2. mapa: Jatorri atzeritarreko biztanleak, eskualdeen arabera Araba, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.


- Jatorri atzeritarreko 10 biztanletik ia 9 Arabako Lautadan kokatzen da: 8.646 biztanle, jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 87,4.
- Gainerako eskualdeetan % 6tik beherako dentsitateko datuak ikus daitezke, horietan dentsitate handiena Kantauri Arabarrak du; % 5,9, 2.600 biztanle inguruk du jatorri atzeritarra.
- Errioxa Arabarra eskualdean, jatorri atzeritarreko biztanleak 1.500 inguru dira.
- Jatorri atzeritarreko 600 biztanle inguru daude Gorbeia Inguruak eta Arabako Ibarak eskualdeetan.
- eta azkenik, Arabako Mendialdea da jatorri atzeritarreko biztanle gutxien kokatzen den eskualdea (200 inguru).

	Jatorri atzeritarreko biztanleak	%
Arabako Ibarak	556	1,3
Errioxa Arabarra	1.508	3,4
Gorbeia Inguruak	668	1,5
Arabako Mendialdea	219	0,5
Kantauri Arabarra	2.622	5,9
Arabako Lautada	38.646	87,4
	44.219	100,0

Beraz, Gasteiz eta Arabako Lautadako beharrian eta ezaugarriek baldintzatzen dute herrialde osoko jatorri atzeritarreko biztanleriaren banaketa, ondorengo ataletan ikusiko den moduan.

Nolanahi ere, interesgarria da ikustea zein den jatorri atzerritarreko biztanleriak biztanleria osoarekiko hartzen duen lekua:

18. *grafikoa. Espainiar jatorria eta jatorri atzerritarreko biztanleria banaketa. Arabako eskualdeak. 2019 (%)*



- Arabako Lautadan eta Errioxa Arabarrean jatorri atzerritarreko biztanleriak biztanleria osoarekiko pisu handiagoa du gainerako eskualdeetan baino: % 14,4 Arabako Lautadan, eta % 13,5 Arabako Errioxan.
- Aldiz, gainerako eskualdeetan, dentsitate hori nabarmen txikiagoa da: % 9,9 Arabako Ibarreko eskualdean, eta % 7,6 Arabako Mendialdean, Gorbeia Inguruko eskualdean eta Kantauri Arabarrean.

	Arabako Ibarrak		Arabako Lautada		Arabako Mendialdea		Errioxa Arabarra		Gorbeia Inguruak		Kantauri Arabarra		Araba	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Espainiar jatorria	5.072	90,1	229.968	85,6	2.680	92,4	9.693	86,5	8.104	92,4	31.813	92,4	287.330	86,7
Jatorri atzerritarra	556	9,9	38.646	14,4	219	7,6	1.508	13,5	668	7,6	2.622	7,6	44.219	13,3
Guztira	5.628	100,0	268.614	100,0	2.899	100,0	11.201	100,0	8.772	100,0	34.435	100,0	331.549	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019).

4.1 ARABIERA ETA AMAZIGERA


4.1.1 Jatorria: Maroko

Marokon jatorria duten 7.547 biztanle daude egun Araban, eta gehiengoa Arabako Lautadan kokatzen da, ia 6.000 lagun baitaude eskualde horretan. Horrela, arabiera edota amazigera hizkuntzek presentzia nabarmena izan dezakete bertan. Arestian esan bezala, jatorri horietako biztanleek frantsesez ere hitz egin ohi dute.

Esanguratsua da, dena den, Errioxa Arabarra eta Kantauri Arabarra eskualdeetan ere jatorri-estatu honetako biztanle-kopuru zabalak daudela (671 eta 585 biztanle, hurrenez hurren). Gainerako eskualdeetan 150 biztanle baino gutxiago biltzen dira.

	<i>Abs.</i>	%
Arabako Ibarrek	148	2,0
Arabako Lautada	5.959	79,0
Arabako Mendialdea	58	0,8
Errioxa Arabarra	671	8,9
Gorbeia Inguruak	126	1,7
Kantauri Arabarra	585	7,8
GUZTIRA	7.547	100,0

3. mapa. Marokon jatorria duten biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

4.1.2 Jatorria: Aljeria

4. mapa. Aljerian jatorria duten biztanleen banaketa.
Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

Aljerian jatorria duten pertsonen gehiengo nabarmena Arabako Lautadan kokatzen da (2.200 lagun inguru, % 86,3), baina aipagarria da Kantauri Arabarrean duten presentzia ere (250 lagun inguru, % 10,0). Gainerako eskualdeetan, oso baxua da, proportzionalki, jatorri-estatu honetako biztanleen kopurua.

Marokon eta Aljerian jatorria dutenen arabieraren aldaera desberdinak izan daitezkeen arren, kontuan izatekoa da ulergarritasunaren aldetik hurbil egon daitezkeela. Beraz, pentsatzekoa bi jatorri horietakoak kontuan izanda Araban 10.000 biztanle inguru izan daitezkeela arabiera hitzunik (Marokotik etorritakoak 7.547, 2.542 Aljeriatik).


Kopuruz txikiagoa izango den arren, espero izatekoa da Aljeria jatorrikoen artean amazigera hitzunik izatea. Era berean, eta Frantziako kolonizazioaren eraginez frantsesak lurralde horretan duen presentzia eta erabilera formalaren ondorioz biztanle asko frantsesdunak ere badira.

	<i>Abs.</i>	%
Arabako Ibarak	13	0,5
Arabako Lautada	2.194	86,3
Arabako Mendialdea	12	0,5
Errioxa Arabarra	37	1,5
Gorbeia Inguruak	33	1,3
Kantauri Arabarra	253	10,0
GUZTIRA	2.542	100,0

4.2 PORTUGESA

4.2.1 Jatorria: Portugal

5. mapa. Portugalen jatorria duten biztanleen banaketa.
Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Egun, Arabako 1.551 lagunek dute jatorria Portugalen, eta gehiengoa Arabako Lautadan kokatzen da (1.060 biztanle).

Azpimarratzekoa da, ordea, jatorri-estatu honetako biztanleek Errioxa Arabarrean duten presentzia (248 biztanle).

	Abs.	%
Arabako Ibarrek	103	6,6
Arabako Lautada	1.060	68,3
Arabako Mendialdea	12	0,8
Errioxa Arabarra	248	16,0
Gorbeia Inguruak	54	3,5
Kantauri Arabarra	74	4,8
GUZTIRA	1.551	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

4.2.2 Jatorria: Brasil

Brasilen jatorria duten 1.458 lagun daude egun erroldan izena emanda Araban, eta gehiengoak Arabako Lautadan kokatzen da. Hori dela eta, portugesak presentzia nabarmena izan dezake eskualde horretan.

Gainerako eskualde guztietan daude lurralde horretako jatorria duten biztanleak baina oso kopuru txikiagotan, azpimarratzekotan proportzionalki esanguratsua da Kantauri Arabarra eskualdean (jatorria Brasilen duten biztanleriaren % 4,9a). Kasu horretan, beraz, arreta bereziaz erreparatzea komenigarria izan daiteke.

Nahiz eta jatorri desberdinekoak izan, hizkuntzaren aldetik esan daiteke bai Portugal zein Brasil jatorriko biztanleek portugesez hitz egiten dutela, aldaera geografikoak gorabehera.

Kasu horietan, beraz, arreta bereziz erreparatu beharko litzaioke portugesak izan dezakeen presentziari herrialde osoan 3.000 biztanle direlako: Arabako Lautadan ia 2.500.

	<i>Abs.</i>	%
Arabako Ibarrek	26	1,8
Arabako Lautada	1.315	90,2
Arabako Mendialdea	2	0,1
Errioxa Arabarra	28	1,9
Gorbeia Inguruak	15	1,0
Kantauri Arabarra	72	4,9
GUZTIRA	1.458	100

6. mapa. Brasilen jatorria duten biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-erroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.


4.3 ERRUMANIERA (ERRUMANIA)

Errumanian jatorria duten Arabako biztanleak 1.713 dira; hiru laurden baino gehiago Arabako Lautadan bizi bada ere (% 78,2), Kantauri Arabarra (% 10,9) nahiz Errioxa Arabarra (% 6,6) eskualdeetan jatorri horretako biztanle-kopuru esanguratsuak daude (100tik gora lagun bi kasuetan).

Gainerako eskualdeetan, proportzio txikiagoa dute errumanieraz hitz egin dezaketen biztanleek (40 lagun baino gutxiago dira bakoitzean).

	Abs.	%
Arabako Ibarrek	20	1,2
Arabako Lautada	1.339	78,2
Arabako Mendialdea	16	0,9
Errioxa Arabarra	113	6,6
Gorbeia Inguruak	39	2,3
Kantauri Arabarra	186	10,9
GUZTIRA	1.713	100,0

7. mapa. Errumanian jatorria duten biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

4.4 URDU ETA PUNJABERA (PAKISTAN)

8. mapa. Pakistanen jatorria duten biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Pakistanen jatorria duten Arabako populazioaren gehiengoa ere Arabako Lautadan kokatzen da (1.566 lagun; % 92,8). Gainerakoek, nagusiki, Errioxa Arabarrean dute euren kokapena (69 lagun; % 4,1).

Hala, bi eskualde horietan urdu hizkuntza edota punjabera darabilten biztanle-multzo esanguratsua aurki daiteke.

	Abs.	%
Arabako Ibarrek	0	0,0
Arabako Lautada	1.566	92,8
Arabako Mendialdea	6	0,4
Errioxa Arabarra	69	4,1
Gorbeia Inguruak	13	0,8
Kantauri Arabarra	33	2,0
GUZTIRA	1.687	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

4.5 FRANTSESA (FRANTZIA)

9. mapa. Frantzian jatorria duten biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

Era berean, Frantziak gain Europako zenbait estatutako biztanle askok dute frantsesa jatorrizko hizkuntza Suitza, Belgika edota Monakoren kasuan, besteak beste.

Azkenik, aipatu gabe ezin utzi Frantzia jatorria duten biztanle batzuk ere, frantsesez gain, beste hizkuntza batzuk ere hitz egin dezaketela, hala nola, euskara, bretoiera, okzitaniera eta alemana, besteak beste.

Frantzian jatorria duten 10 biztanletik 8 Arabako Lautadan kokatzen da. Gainerako eskualdeetan, oso baxua da, absolutuetan, jatorri-herrialde honetako biztanleen kopurua. Dena den, aipatzekoa dirudi Kantauri Arabarrean jatorri-estatu honetako 50 lagun inguru kokatzen direla.

	Abs.	%
Arabako Ibarrek	16	2,3
Arabako Lautada	606	85,8
Arabako Mendialdea	4	0,6
Errioxa Arabarra	12	1,7
Gorbeia Inguruak	20	2,8
Kantauri Arabarra	48	6,8
GUZTIRA	706	100,0

Kontuan izan behar da Afrikako zenbait lurraldetan jatorria duten biztanle ugari frantsesez ere hitz egiten dutela, jatorriko estatu horietan ofiziala delako (Kongo, Boli Kosta, Benin, Burkina Faso, Burundi, Ekuatore Ginea, Gabon, Ginea, Mali, Togo, Txad..) estatuetan edota kolonizazioaren eraginez, Aljerian edo Marokoren kasuetan bezala.

4.6 NIGERIA, TXINA, UKRAINA ETA SENEGAL JATORRIA DUTEN BIZTANLEEN BANAKETA

Ukraina eta Senegal jatorria duten biztanleak 500 baino gehiago dira, 1.000tik gora Txina jatorrikoak eta 2.000tik gora Nigeria jatorria dutenak. Baina biztanle horiek ia guztiak Arabako Lautadan dute bizileku, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

8. *Nigeria, Txina, Ukraina eta Senegal jatorria duten biztanleriaren banaketa eskualdearen arabera*

	Nigeria		Txina		Ukraina		Senegal	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Arabako Ibarrek	4	0,2	5	0,5	6	1,0	6	1,1
Arabako Lautada	1.981	98,1	1.014	93,1	549	93,4	508	95,7
Arabako Mendialdea	0	0,0	0	0,0	0	0,0	1	0,2
Errioxa Arabarra	1	0,0	6	0,6	4	0,7	6	1,1
Gorbeia Inguruak	6	0,3	11	1,0	10	1,7	5	0,9
Kantauri Arabarra	27	1,3	53	4,9	19	3,2	5	0,9
GUZTIRA	2.019	100,0	1.089	100,0	588	100,0	531	100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019).

Hala gertatzen da Nigerian jatorria dutenen artean; ia guztiak Arabako Lautadan kokatzen dira (1.981 lagun, % 98,1). Gainerako eskualdeetan, oso txikia da presentzia hori, proportzionalki nahiz kopuru absolutuetan. Hala, bereziki Arabako Lautadan jorubera, igboera, hausa hizkuntzen presentzia esanguratsua izango dela aurreikusi daiteke, besteak beste. Horrez gain, Nigerian ingelesak duen presentziagatik (ofiziala estatu osoan), oso ohikoa da bertatik etorritako biztanleek hizkuntza horretan ere hitz egitea.

Txinan jatorria duten lagunen artean ere gehiengo nabarmena Arabako Lautadan kokatzen da (% 93,1). Beste eskualderik aipatzekotan, Kantauri Arabarrean erroldatuta dauden 53 lagunak har litezke kontuan. Beraz, espero daiteke mandarin txinera edota kantonera hizkuntzak (besteak beste) hitz egin ditzakeen talde zabalena Arabako Lautadan izatea, bereziki, Gasteizen bertan.

Ukrainan eta Senegalen jatorria duten gehiengo nabarmena eskualde berean kokatzen da, jatorri horietako % 93,4 eta % 95,7, hurrenez hurren. Beraz, ukrainera hizkuntza (besteak beste) hitz egin dezakeen talde zabala egon daiteke Arabako Lautadan (549 hiztun), baita Senegal jatorriko wolofera, fula eta serer hizkuntzetan, eta ofiziala den fratsesez ere hitz egingo duten 531 lagun ere, besteren artean. Gainerako eskualdeetan, oso kopuru txikitik aurkitzen dira.

4.7 GAZTELANIA OFIZIALA DUTEN JATORRI-ESTATUAK

10. mapa. Gaztelania ofiziala duten jatorri-estatuetakoko biztanleen banaketa. Arabako eskualdeak, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA SLK-k.

Erdi eta Hego Amerikan jatorria duten Arabako biztanleak jatorri atzerritarreko kopuru osoaren herena baino zertxobait gehiago dira; eta oso muturreko banaketa du herrialdean, Arabako Lautadan kokatzen baita % 90,2a.

	Abs.	%
Arabako Ibarrek	134	0,8
Arabako Lautada	14.672	90,2
Arabako Mendialdea	74	0,5
Errioxa Arabarra	184	1,1
Gorbeia Inguruak	216	1,3
Kantauri Arabarra	991	6,1
GUZTIRA	16.271	100,0

- Biztanleria horren artean aniztasun oso handia dago, bai jatorri lurraldeari dagokionean baita migrazio-prozesuaren ezaugarriei dagokienean ere. Horien artean, Araban nabarmentzen dira Kolonbian jatorria dutenak, 5.420 biztanle baitira.
- Kontuan izatekoa da gaztelaniaz gain biztanleria horren artean Amerikako jatorria duten hizkuntzak ere hitz egiten dituztela. Horien artean aimara, guarania, mapudungum, ketxua, kitxua, guanbiera, mixtekera, nahuatlara, nasa yuwe, yukatekera daude.


5 ESKUALDE MAILAKO AZTERKETA

Ezar dezagun orain lupa eskualde bakoitzean: zer hizkuntza-aniztasun dago Arabako eskualdeetan?

5.1 JATORRI ATZERITARREKO BIZTANLEEN BANAKETA, ESKUALDEETAN

Laugarren ataleko hasiera-oharrean jaso bezala, jatorri atzeritarreko biztanle gehienak Arabako Lautadako eskualdean kokatzen dira, Gasteizen erakarmen gaitasuna dela-eta. Halere, interesgarria da aztertzea zein den bere pisu eskualdez eskualdeko biztanleria osoa aintzat hartuta.

11. mapa. Jatorri atzeritarreko biztanleak, eskualdeetako biztanle osoarekiko. Araba, 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). GRAFIKOA SLK.

Hiru multzotan bereiz daitezke eskualdeak:

- Jatorri atzerritarreko biztanleria % 14 inguru deneko eskualdeak: Arabako Lautada (% 14,4) eta Errioxa Arabarra (% 13,5).
- Tartean kokatzen da Arabako Ibarrek eskualdea; biztanleen % 9,9k du jatorria atzerrian.
- Jatorri atzerritarren biztanleen pisua % 7,6koa direnako eskualdeak: Kantauri Arabarra, Gorbeia Inguruak eta Arabako Mendialdea.

9. **taula: Biztanleriaren jatorria, eskualdeen arabera. Araba, 2019 (Abs.; %)**

	Arabako Ibarrek	Arabako Lautada	Arabako Mendialdea	Errioxa Arabarra	Gorbeia Inguruak	Kantauri Arabarra	ARABA
Jatorri atzerritarra	556	38.646	219	1.508	668	2.622	44.219
Espainiar estatuan jatorria	5.072	229.968	2.680	9.693	8.104	31.813	287.330
GUZTIRA	5.628	268.614	2.899	11.201	8.772	34.435	331.549
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Jatorri atzerritarra	9,9	14,4	7,6	13,5	7,6	7,6	13,3
Espainiar estatuan jatorria	90,1	85,6	92,4	86,5	92,4	92,4	86,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Eustat, Biztanleen udal-errolaren estatistika (2019). GRAFIKOA eta TAULA SLK-k.

5.2 HIZKUNTZA-KOMUNITATEEN INTENTSITATEA, ESKUALDE BAKOITZEAN

Eskualde bakoitzeko berezitasunak nabarmenduko dira atal honetan, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketaren ikuspegitik, eta Arabako hizkuntza-komunitate nagusi horietako bakoitzak eskualde bakoitzean zein intentsitate duen aurkeztuko da.

5.2.1 Arabako Lautada

19. *grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Arabako Lautada, 2019 (Abs.)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

Arabako Laudatan kokatzen dira jatorri atzerriarrek 10 biztanletatik ia 9 (2.mapa).

Jatorri-estatuan gaztelania hizkuntza ofizialtzat dutenak multzorik handiena da (14.500 hiztun baino gehiago).

Arabiera edota amazigera hizkuntzak hitz egin ditzaketen 8.000 biztanle baino gehiago daude Arabako Lautadan erroldatuta; jatorria Marokon edo Aljerian dute.

Kopuru horiek baino txikiagoak dituzte gainerako hizkuntza-komunitate nagusiek. Hala ere, guztiek 500 hiztun baino gehiago izan ditzakete eskualde honetan.

2.000 hiztun inguru izan ditzaketen bi hizkuntza-komunitate dira portuguesarena (Brasil eta Portugal jatorrikoak) eta jorubera, igboera, hausa... hizkuntzena (jatorria Nigerian). 1.000-1.500 lagunek hitz egin ditzakete urdu, punjabera (Pakistan), errumaniera (Errumania), mandarin txinera eta kantonera (Txina) hizkuntzek Arabako Laudatan. Azkenik, 500-600 laguneko komunitatea osa dezakete frantsesez, ukraineraz edo wolofera, fula, serer... hizkuntzetan mintzo direnek.

5.2.2 Kantauri Arabarra


Kantauri Arabarraren kasuan, bi talde dira nabarmenki bereizten direnak gainerakoetatik: jatorrian gaztelania hizkuntza ofizialtzat dutenen multzoa (ia 1.000 lagun), eta arabieraz edota amazigeraz mintzo daitezkeen biztanleak (Marokon eta Aljerian jatorria duten 850 lagun inguru).

Gainerako hizkuntza-komunitateek, ordea, nabarmen kopuru txikiagoak dituzte. Izan ere, jarraian datozen hizkuntza-komunitatek 200 azpiko kopuruak dituzte errumanieraz edo portugesez hitz egin dezaketenek, alegia.

Azkenik, 50 hiztun baino gutxiago izan ditzakete hizkuntza hauek:

- Mandarin txinera edota kantonera.
- Frantsesa.
- Urdu, punjabera eta ingelesa
- Jorubera, igboera, hausa, fula... eta ingelesa
- Ukrainera
- Wolofera, fula, serer... eta frantsesa


20. **grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Kantauri Arabarra, 2019 (Abs.)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

5.2.3 Errioxa Arabarra

21. *grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Errioxa Arabarra, 2019 (Abs.)*



Errioxa Arabarra eskualdean, jatorri atzeritarreko biztanleen artean, ez dira gehiengoa gaztelania jatorrian hizkuntzatzen dutenak. Gehiago dira arabiera edota amazigera hizkuntzak hitz egin ditzakeen komunitateak (700 hiztun potentzial dituzte hizkuntzok).

Portugesez hitz egiten dezaketen biztanleak, 300 inguru dira (jatorria Portugal eta Brasil).

Jarraian datoz jatorrian gaztelania ofiziala duten ia 200 biztanle. Halaber, aipagarria da Errioxa Arabarrean errumaniera edo urdu, punjabera hitz egin dezaketenen kopurua.

Gainerako hizkuntzetan mintzo daitezkeen biztanleak gutxi dira eskualde honetan.

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

5.2.4 Gorbeia Inguruak

Eskualde honetan erroldatutako atzerriko biztanle gehienek gaztelania ofiziala den herrialdeetan dute jatorria (216 lagun).


Esanguratsua da, era berean, arabiera eta amazigera hizkuntzak hitz egin ditzaketen biztanleen multzoa: ia 160 lagun.

Kopuru horietatik dezente beherago kokatzen dira eskualde honetan portugesez (69 lagun) edo errumanieraz (39 lagun) mintzo daitezkeenak.

Azkenik, Gorbeia Inguruak eskualdean, 20 lagun baino gutxiago dira hizkuntza-komunitate hauetako partaide:

- Frantsesa
- Urdu eta Punjabera eta ingelesa
- Mandarin txinera eta kantonera
- Ukrainera
- Jorubera, igboera, hausa, fula... eta ingelesa
- Woolfera, fula, serer... eta frantsesa


22. **grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Gorbeia Inguruak, 2019 (Abs.)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-erroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

5.2.5 Arabako Ibarak

23. **grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Arabako Ibarak, 2019 (Abs.)**



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

Arabako Ibarak eskualdean, hizkuntza-komunitate nagusia osatzen dute Marokon eta Aljerian jatorria duten biztanleek; arabieraz edota amazigeraz mintzo daitezke 161 lagun bertan.

Jarraian, antzeko kopurua dute jatorriko herrialdean hizkuntza ofizial gaztelania izan dutenek nahiz portugesa izan dutenek. 130 lagun inguruk hitz egin ditzakete hizkuntza horiek.

Gainerako hizkuntzek komunitate txikia osatzen dute eskualde honetan, 20 lagun baino gutxiagokoa:

- Errumaniera
- Frantsesa
- Ukrainera
- Wolofera, fula, serer... eta frantsesa
- Mandarin txinera eta kantonera
- Jorubera, igboera, hausa, fula... eta ingelesa

Azkenik, Pakistanen jatorria duen biztanlerik ez dago eskualde honetan errolatuta. Beraz, ez da espero urdu edota punjabera hizkuntzak bertan hitz egingo direnik.

5.2.6 Arabako Mendialdea


Arabako Mendialdean dago jatorri atzeritarreko biztanle-kopuru txikiena. Kasu honetan, jatorri-estatuan gaztelania ofiziala dutenak eta arabieraz eta amazigeraz hitz egin dezaketeenak (jatorria Marokon eta Aljerian) antzeko kopurua dute, 74 eta 70 hurrenez hurren. Horiexek dira bi hizkuntza-komunitate nagusiak Arabako Mendialdean.

Hiztun potentzialen kopuru dezente txikiagoa dute gainerako hizkuntzek:

- 15 lagun inguru errumanierak eta portugesak
- Gutxiago mintzo daitezke urdu, punjabera, frantsesa, wolof, fula, serer... hizkuntzetan

Horrez gain, ez dago Nigeriatik, Txinatik edo Ukrainatik etorritako biztanleriak eskualde honetan. Beraz, ez da espero jorubera, igboera, hausa, mandarin txinera, kantonera edo ukrainera hizkuntzak hitz egingo direnik Arabako Mendialdean.

24. **grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Arabako Mendialdea, 2019 (Abs.)**




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k.

5.3 ARABAKO ESKUALDEETAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNA LABURBILDUZ

Eskualdez eskualde aurkezturiko datuak alderatuz osatu dugu ondorengo grafikoa eta taula:

25. *grafikoa. Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Arabako eskualdeak, 2019 (%)*



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK-k

10. taula: Hizkuntza-komunitate nagusiak, 20 jatorri-estatu nagusiak kontuan hartuz. Arabako eskualdeak, 2019

	Arabako Ibarrek		Arabako Lautada		Arabako Mendialdea		Errioxa Arabarra		Gorbeia Inguruak		Kantauri Arabarra	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Arabiera eta amazigera (Maroko eta Aljeria)	161	29,0	8.153	21,1	70	32,4	708	46,9	159	23,8	841	32,1
Portugesak (Portugal eta Brasil)	129	23,2	2.375	6,1	14	6,5	276	18,3	69	10,3	146	5,6
Yoruba, Igboera, Hausa... (Nigeria)	4	0,7	1.981	5,1	0	0,0	1	0,1	6	0,9	27	1,0
Errumaniera (Errumania)	20	3,6	1.339	3,5	16	7,4	113	7,5	39	5,8	186	7,1
Urdu eta Punjabera (Pakistan)	0	0,0	1.566	4,1	6	2,8	69	4,6	13	1,9	33	1,3
Mandarin txinera eta kantonera (Txina)	5	0,9	1.014	2,6	0	0,0	6	0,4	11	1,6	53	2,0
Frantsesa (Frantzia)	16	2,9	606	1,6	4	1,9	12	0,8	20	3,0	48	1,8
Ukrainera (Ukraina)	6	1,1	549	1,4	0	0,0	4	0,3	10	1,5	19	0,7
Wolof, fula, serer... (Senegal)	6	1,1	508	1,3	1	0,5	6	0,4	5	0,7	5	0,2
Gaztelania jatorrian	134	24,1	14.672	38,0	74	34,3	184	12,2	216	32,3	991	37,8
Gainerako jatorritakoak	75	13,5	5.883	15,2	31	14,4	129	8,6	120	18,0	273	10,4
GUZTIRA	556	% 100,0	38.646	% 100,0	216	% 100,0	1.508	% 100,0	668	% 100,0	2.622	% 100,0

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019).

5.4 ESKUALDE MAILAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUN HANDIA

Hiztun-kopuru handiko hizkuntzekin batera, ordea, Araban hiztun-kopuru txikiagoko -oso txikiak kasu askotan- 140 hizkuntza inguru gehiago ere hitz egiten dira, alegia, hizkuntza-aniztasun oso handia dagoela aurreikus daiteke.

Jatorri- eta hizkuntza-dibertsitate hori, espero bezala, bereziki handia da Arabako Lautada eskualdean, baina gainerako eskualdeetan ere nabarmentzekoa da, kopuru altuko horrez gain, gutxienez, 45etik gorako jatorri-estatuko biztanleak baitaude eskualdez eskualde banatuta, Arabako lurralde zabalean. Ondorengo grafikoak erakusten du eskualdeetan jatorri-estatuen kopurua biztanleriaren arabera banatuta.

26. **grafikoa. Jatorri-estatuak eta biztanleak (hiztun potentzialak). Arabako eskualdeak, 2019**



11. **taula: Jatorri-estatuak eta biztanleak (hiztun potentzialak). Arabako eskualdeak, 2019**


	Jatorri-estatu kop.	Biztanleria GUZTIRA
Arabako Ibarak	45	5.628
Errioxa Arabarra	59	11.201
Gorbeia Inguruak	59	8.772
Arabako Mendialdea	36	2.899
Kantauri Arabarra	74	34.435
Arabako Lautada	145	268.614
		331.549

Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). Grafikoa SLK.

6 UDALERRI MAILAKO AZTERKETA

6.1 JATORRI ATZERITARREKO BIZTANLEEN DENTSITATEA UDALERRIETAN

12. mapa. Jatorri atzeritarreko biztanleria. Arabako udalerriak, 2019
(Udalerriko biztanle guztiekiko %)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA. SLK

Atal honetan, jatorri atzeritarreko biztanleriaren proportzioa aztertuko da, bertan kokatzen baita udalerriz udalerriko hizkuntza-aniztasuna¹⁰.

Arabako udalerrietan Guardiako % 0,4tik Kripango % 40,7ra doan zabaleran kokatzen dira proportzio horiek.

Eskualde guztietan, gainera, dentsitate apala duten udalerriak ikus daitezke ehuneko altua dutenen aldamenean, bereziki Errioxa Arabarrean.

¹⁰ Udalerrri mailako jatorri-estatu nagusietako datuak 1 Eranskinean ikus daitezke.

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberako hurbilketa

12. taula: Jatorri atzeritarreko biztanleria eta biztanleria osoa udalerrri-mailan. Araba, 2019

	Udalerrria	Biztanl. Guztira	Jatorri atz.	Biztanleria osoare kiko% ¹¹
	ARABA	331.549	44.219	13,3

ARABAKO IBARRAK 9,9				
1	Añana	156	17	10,9
2	Armiñón	227	12	5,3
3	Berantevilla	453	38	8,4
4	Erriberabeitia	1.350	186	13,8
5	Erriberagoiria	785	55	7,0
6	Gaubea	996	99	9,9
7	Kuartango	376	24	6,4
8	Lantarón	875	77	8,8
9	Zambrana	410	48	11,7

ARABAKO LAUTADA 14,4				
10	Agurain	5.062	753	14,9
11	Arratzu-Ubar.	980	56	5,7
12	Asparrena	1.614	171	10,6
13	Barrundia	883	61	6,9
14	Burgu	599	46	7,7
15	Donemiliaga	715	29	4,1
16	Dulantzi	2.876	358	12,4
17	Gasteiz	251.774	36.774	14,6

18	Iruña Oka	3.411	368	10,8
19	Iruraiz-Gauna	517	21	4,1
20	Zalduondo	183	9	4,9

ARABAKO MENDIALDEA 7,6				
21	Arraia-Maeztu	726	52	7,2
22	Bernedo	494	33	6,7
23	Harana	221	6	2,7
24	Kanpezu	1.040	112	10,8
25	Lagran	157	5	3,2
26	Urizaharra	261	11	4,2

ERRIOXA ARABARRA 13,5				
27	Bastida	1.452	188	12,9
28	Bilar	333	33	9,9
29	Ekora	268	39	14,6
30	Eltziego	1.005	88	8,8
31	Guardia	1.318	5	0,4
32	Kripan	295	120	40,7
33	Lantziego	691	139	20,1
34	Lapuebla de Labarca	926	181	19,5
35	Leza	203	29	14,3
36	Mañueta	291	52	17,9
37	Moreda Araba	221	17	7,7
38	Navaridas	200	30	15,0
39	Oion	3.386	532	15,7
40	Samaniego	316	23	7,3
41	Villabuena de Álava/Eskuernaga	296	32	10,8

GORBEIA INGURUAK 7,6				
42	Aramaio	1.467	55	3,7
43	Legutio	1.885	237	12,6
44	Urkabustaiz	1.371	152	11,1
45	Zigoitia	1.747	86	4,9
46	Zuia	2.302	138	6,0

KANTAUARI ARABARRA 7,6				
47	Aiara	2.974	101	3,4
48	Amurrio	10.350	978	9,4
49	Artziniega	1.821	146	8,0
50	Laudio	18.102	1.309	7,2
51	Okondo	1.188	88	7,4

¹¹ Taulan, eskualdeko jatorri atzeritarreko biztanleen ehunekoa gainditzen duten kasuak itzal gorridunez margotu dira.

Eskualdez eskualde udalerrietako immigrazioko dentsitateei erreparatuz, honako ideia nagusiak azpimarra daitezke udalerri horien balio demografikoak kontuan izanda:

- Arabako eskualde populatuenean (Arabako Lautadan) eta biztanlerik gutxien bizi den Arabako eskualdean (Arabako Mendialdea) fenomeno bera gertatzen da: eskualdeko udalerri populatuenean dute erakarmen gehien jatorri atzeritarreko biztanleentzat. Hala, Gasteizen (eta jarraian Agurainen) eta Kanpezun bizi dira eskualdean errolatutako jatorri atzeritarreko biztanle gehien (36.774, 753 eta 112 lagun, hurrenez hurren).
 - Proporzionaliki, Gasteizen eta Agurainen ia % 15eko portzentajea eskuratzen dute jatorri atzeritarreko biztanleak; Kanpezun, berriz, ia % 11koa da portzentajea. Hirurek gaitzen dute bakoitzaren eskualdeko portzentuala; Arabako Lautadan (% 14,4) jatorri atzeritarreko biztanleriaren kontzentrazio gehiago dago Arabako Mendialdean (% 7,6) baino (11.mapa).
 - Kontuan hartzekoa da, ordea, ezaugarri demografiko desberdinak dituztela hirurek: Arabako hiriburua da bata 251.774 biztanlerekin (Gasteiz), 5.000 biztanleko udalerria bestea (Agurain), eta azkena 1.000 biztanlekoa (Kanpezu).
- Gorbeia Inguruak eta Kantauri Arabarra eskualdeetan, alderantzizko fenomenoak gertatzen da. Hau da, Zuia eta Laudio eskualdeko udalerri populatuena izan arren, jatorri atzeritarreko biztanleak ehunekotan gehiago dira Legutian eta Urkabustaizen (Gorbeia Inguruak eskualdearen kasuan) eta Amurrión eta Artziniegan (Kantauri Arabarra eskualdearen kasuan).
 - Gorbeia Inguruak eskualdeko udalerrien artean, biztanleria horren muturreko banaketa sumatzen da: Legutioko (% 12,6) eta Urkabustaizeko (% 11,1) pisuen erdia baino gutxiago hartzen dute gainerako udalerrietan.
 - Kantauri Arabarra eskualdean, Amurrión eta Artziniegan kontzentratzen dira gehien, baina, kopuru absolutuetan, Laudion daude errolatuta eskualdeko gehienak. Aipagarria da, azkenik, Okondo eskualdean gutxien populatutako udalerria izanik, Laudion adinako jatorri atzeritarreko biztanleriaren kontzentrazio-maila duela. Horrek badu zeresana udalerriko hizkuntza errealitatean.
- Arabako Ibarra eta Errioxa Arabarra eskualdeetan, berriz, eskualdeko udalerri populatuenean jatorri atzeritarreko biztanleen dentsitate altua badute ere (Erriberaitia eta Oion, hurrenez hurren), badira biztanle txikiagoak diren hainbat herri erakargarri jatorri atzeritarreko biztanleentzat.


- Arabako Ibarrek eskualdean, Erriberabeitiaz gain, Zanbrana eta Añana udalerrietako jatorri atzerritarreko biztanleen dentsitatea azpimarratzekoa da (% 11,7 eta % 10,9 hurrenez hurren). 400 biztanle inguru ditu lehenak, eta bigarrenak 150 inguru.
- Errioxa Arabarrean kokatzen da jatorri atzerritarreko biztanleen dentsitate handiena duen Arabako udalerria: Kripan (295 biztanle guztira). Oso esanguratsua da kopuru hori, izan ere, Kripanen bizi den 10 biztanletik 4k du jatorria atzerrian.
 - Gainera, beste 7 udalerrian ere bereziki altua da jatorri atzerritarreko biztanleen kontzentrazio-maila: Ekora, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Navaridas eta eskualdeko udalerri populatuena den Oion. Horien artean, azpimarratzekoak dirudite Lantziego eta Lapuebla de Labarca udalerrien kasuak. Bi udalerri horietan, 10 biztanletik 2k du jatorri atzerritarra (% 20,1 eta % 19,5 hurrenez hurren).
 - Azkenik, eskualde honetan topa daiteke Arabako jatorri atzerritarreko biztanle dentsitate txikiena duen udalerria ere: Guardia (1.318 biztanle). Beraz, jatorri atzerritarreko biztanleriaren banaketa kontuan hartuz, berezitasun propioak dituen eskualdea dugu honakoa.

6.2 HIZKUNTZA-KOMUNITATEEN INTENTSITATEA, DENTSITATE HANDIENKO UDALERRIETAN

Laburbiltzeko, ondorengo taulan ikus daiteke jatorri atzeritarreko biztanleria % 13tik gora¹² duten Arabako udalerrien zerrenda.

Horien artean, hiru eskualdetako udalerriekin egin da topo: Errioxa Arabarra, Arabako Lautada eta Arabako Ibarrak. Hain zuzen, jatorri atzeritarreko biztanle gehien kontzentratzen diren Arabako eskualdeak dira (11. mapa). Hala, dentsitate handiena duten udalerrien zerrendan, hiru eskualde horietako udalerrak populatuena ageri badira ere (Oion, Gasteiz eta Erriberabeitia), biztanle oso gutxi dituzten Errioxa Arabarreko herriak ere badira bertan (Navaridas edo Leza kasu).

27. **grafikoa. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren dentsitatea % 13tik gora duten udalerrak. Araba, 2019 (%)**



13. **Taula. Jatorri atzeritarreko biztanleriaren dentsitatea % 13tik gora duten udalerrak. Araba, 2019**


		Biztanleria osoa	Jatorri atzeritarra (%)
Errioxa Arabarra	Kripan	295	40,7
Errioxa Arabarra	Lantziego	691	20,1
Errioxa Arabarra	Lapuebla de Labarca	926	19,5
Errioxa Arabarra	Mañueta	291	17,9
Errioxa Arabarra	Oion	3.386	15,7
Errioxa Arabarra	Navaridas	200	15,0
Arabako Lautada	Agurain	5.062	14,9
Arabako Lautada	Gasteiz	251.774	14,6
Errioxa Arabarra	Ekora	268	14,6
Errioxa Arabarra	Leza	203	14,3
Arabako Ibarrak	Erriberabeitia	1.350	13,8

¹² % 13 diogu horixe baita jatorri atzeritarreko biztanleek Arabako biztanleria osoarekiko hartzen duten pisua (9.taula).

- 6.1 atalean esan bezala, jatorri atzeritarreko biztanle dentsitate handiena duen Arabako udalerria Kripan da, Errioxa Arabarrean. Nagusiki, arabieraz eta amazigeraz mintzo den komunitatek presentzia du bertan.
 - Errioxa Arabarra eskualdearekin jarraituz, Lantziego eta Lapuebla de Labarca udalerrien kasuak azpimarratu ditugu aurreko atalean. Bi udalerri horietan, gehiengoak Marokon eta Aljerian dute jatorria. Beraz, arabierak eta amazigerak presentzia esanguratsua izan dezakete bertan.
 - Azkenik, zerrendan ageri da eskualdeko udalerri populatuena ere: Oion (3.386 biztanle). Bertan, 532 lagunek dute jatorri atzeritarra, eta gehienek Marokon eta Aljerian dute jatorria hemen ere. Dena den, Pakistanen jatorria duten 62 lagun ere errolatuta daude bertan. Beraz, arabiera, amazigera, urdu edota punjabera hizkuntzak entzun daitezkeela espero liteke bertan.
- Arabako Lautadan, dentsitate handieneko udalerrien zerrendan ageri dira eskualdeko udalerri populatuena: Agurain eta Arabako hiriburua den Gasteiz.
 - Gasteizen: jatorri atzeritarreko Arabako 10 biztanletik 9 bertan kokatzen denez, espero izatekoa zen moduan, Gasteizen presentzia izan dezaketen hizkuntza-komunitateek Arabako hurrenkera orokorra hartzen dute (ikus 3.5.2 atala).
 - Agurainen: arabiera eta amazigera hizkuntzetan mintzo daitezkeen 321 lagun topa daitezke. Era berean, azpimarratzekoa da jatorria Pakistanen duten biztanle-multzoa ere: 118. Ondorioz, urdu edota punjabera hizkuntzak ere ohikoak izan daitezke bertan.
- Azkenik, dentsitate handieneko udalerrien artean Erriberabeitia udalerria dago (% 13,8), 1.350 biztanle dituen Arabako Ibarrek eskualdeko udalerria. Bera da, hain zuzen, eskualdeko herri populatuena, eta bertako hizkuntza-komunitateen intentsitateak bat datoz eskualdeko joera orokorrekin. Horregatik, bertan, gaztelaniaz gain, arabiera eta amazigera nahiz portugesak izan dezakete presentzia gehien.

6.3 MAROKO, ERRUMANIA ETA PORTUGAL JATORRIA DUTEN HIZKUTZAK UDALERRIZ UDALERRI

13. Mapa. Maroko jatorria duen biztanleria. Udalerrri mailako banaketa. Araba. (%)




Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA. SLK

Jatorri atzeritarreko talde nagusien banaketa udalerrri-mailan aztertuz gero, Maroko jatorriko biztanleen kasuan agerian jartzen da honakoa:

- Jatorri atzeritarrekiko ehuneko nabarmen handia hartzen dutela zenbait udalerritan, esate baterako, Arabako Ibarreko Añanan (% 70,6), Kuartangon (% 45,8) edo Zanbranan (% 47,9), Lautadako Asparrenan (% 42,1), Mendialdeko Lagranen (% 40) eta Kantauri aldeko Artziniegan (% 41,14).
- Baina, batez ere, Errioxako eskualdeko udalerrri askotan da Maroko jatorriko biztanleriaren dentsitatea gainerakoen aldean handia: Kripan, Lantziego, Moreda edo Oionen % 50etik gorakoa da dentsitatea, eta Ekoran, Bastidan, eta Lapuebla de Labarca, % 40tik % 50 bitartekoa.
- Nolanahi ere, dentsitatean kopuru esanguratsua izan ez arren, absolutuetan azpimarratu daiteke talde handiena Gasteizen kokatzen dela, espero zitekeen bezala (5.394 biztanle, jatorri atzeritarreko % 14,7), baita herrialdeko udalerrri handienetan ere: Laudion (274 biztanle, % 20,89) eta Amurrión (243 biztanle, % 24,8).
- Inguru horietan, beraz, Marokoko arabiera eta zenbait kasutan amazigera ere hitz egingo dela aurreikus daiteke, besteak beste.

15. Mapa. Portugal jatorria duen biztanleria. Udalerrri mailako bakaketa. Araba. 2019 (%)



Iturria: Eustat, Biztanleen udal-eroldaren estatistika (2019). MAPA. SLK

Errioxa arabarrean aurkitzen dira, baita ere, Portugal jatorria duen biztanleriaren udal-mailako dentsitate handienak:

- Dentsitate handienak udalerrri oso txikitan aurkitzen dira: Mañuetan, Navaridasen, Samaniegon, Villabuenan, Ekoran eta Villarren. Guztiak dira 400 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak eta bertan portugesearen presentzia esanguratsua izan daiteke.
- Arabako Ibarreko eskualdean ere Erriberabeitian, Lantaronen eta Gaubean Portugal jatorriko dentsitatea % 20tik gorakoak dira.
- Azkenik, Lautadan, azpimarra daiteke Burgun (% 37) duten presentzia, eta, dentsitatean garrantzizkoa ez bada ere, kopuru absolututan Gasteizen duten presentzia: 943 biztanle, % 2,6.

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabarako hurbilketa

			Biztanleria GUZTIRA	Jatorri atzeritarra	Abs.	Maroko % jatorri atzeritarreko biztanleriarekiko	Abs.	Errumania % jatorri atzeritarreko biztanleriarekiko	Abs.	Portugal % jatorri atzeritarreko biztanleriarekiko
ARABA			331.549	44.219	7.547	17,1	1.713	3,9	1.551	3,5
Arabako Ibarak			5.628	556	148	26,6	20	3,6	103	18,5
1	Añana		156	17	12	70,6	0	0,0	0	0,0
2	Armiñón		227	12	0	0,0	0	0,0	1	8,3
3	Berantevilla		453	38	11	28,9	1	2,6	0	0,0
4	Erriberabeitia		1.350	186	68	36,6	6	3,2	50	26,9
5	Erriberagoitia		785	55	8	14,5	3	5,5	6	10,9
6	Gaubea		996	99	11	11,1	7	7,1	21	21,2
7	Kuartango		376	24	11	45,8	3	12,5	0	0,0
8	Lantarón		875	77	4	5,2	0	0,0	22	28,6
9	Zanbrana		410	48	23	47,9	0	0,0	3	6,3
Arabako Lautada			268.614	38.646	5.959	15,4	1.339	3,5	1.060	2,7
10	Agurain		5.062	753	242	32,1	36	4,8	10	1,3
11	Arratzua-Ubarrundia		980	56	18	32,1	2	3,6	8	14,3
12	Asparrena		1.614	171	72	42,1	24	14,0	2	1,2
13	Barrundia		883	61	1	1,6	7	11,5	2	3,3
14	Burgu		599	46	9	19,6	2	4,3	17	37,0
15	Donemiliaga		715	29	3	10,3	4	13,8	7	24,1
16	Dulantzi		2.876	358	141	39,4	8	2,2	37	10,3
17	Gasteiz		251.774	36.774	5.394	14,7	1.226	3,3	943	2,6
18	Iruña Oka		3.411	368	79	21,5	30	8,2	33	9,0
19	Iruraitz-Gauna		517	21	0	0,0	0	0,0	1	4,8
20	Zalduondo		183	9	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Arabako Mendialdea			2.899	219	58	26,5	16	7,3	12	5,5
21	Arraia-Maeztu		726	52	9	17,3	8	15,4	4	7,7
22	Bernedo		494	33	6	18,2	0	0,0	1	3,0
23	Harana		221	6	0	0,0	0	0,0	0	0,0

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

24	Kanpezu	1.040	112	41	36,6	7	6,3	6	5,4
25	Lagran	157	5	2	40,0	0	0,0	0	0,0
26	Urizarra	261	11	0	0,0	1	9,1	1	9,1
Errioxa Arabarra		11.201	1.508	671	44,5	113	7,5	248	16,4
27	Bastida	1.452	188	89	47,3	4	2,1	35	18,6
28	Bilar	333	33	3	9,1	4	12,1	13	39,4
29	Ekora	268	39	18	46,2	0	0,0	20	51,3
30	Eltziego	1.005	88	28	31,8	20	22,7	19	21,6
31	Guardia	1.318	5	0	0,0	2	40,0	1	20,0
32	Kripan	295	120	71	59,2	13	10,8	13	10,8
33	Lantziego	691	139	78	56,1	2	1,4	23	16,5
34	Lapuebla de Labarca	926	181	80	44,2	27	14,9	12	6,6
35	Leza	203	29	6	20,7	0	0,0	5	17,2
36	Mañueta	291	52	4	7,7	5	9,6	36	69,2
37	Moreda	221	17	10	58,8	0	0,0	0	0,0
38	Navaridas	200	30	2	6,7	0	0,0	23	76,7
39	Oion	3.386	532	281	52,8	34	6,4	17	3,2
40	Samaniego	316	23	1	4,3	2	8,7	13	56,5
41	Villabuena	296	32	0	0,0	0	0,0	18	56,3
Gorbeia Inguruak		8.772	668	126	18,9	39	5,8	54	8
42	Aramaio	1.467	55	3	5,5	0	0,0	3	5,5
43	Legutio	1.885	237	78	32,9	8	3,4	15	6,3
44	Urkabustaiz	1.371	152	29	19,1	16	10,5	17	11,2
45	Zigoitia	1.747	86	6	7,0	2	2,3	7	8,1
46	Zuia	2.302	138	10	7,2	13	9,4	12	8,7
Kantauri Arabarra		34.435	2.622	585	22,3	186	7,1	74	2,8
47	Aiara	2.974	101	5	5,0	7	6,9	12	11,9
48	Amurrio	10.350	978	243	24,8	138	14,1	33	3,4
49	Artziniega	1.821	146	60	41,1	8	5,5	2	1,4
50	Laudio	18.102	1.309	274	20,9	29	2,2	22	1,7
51	Okondo	1.188	88	3	3,4	4	4,5	5	5,7

7 ONDORIOAK

7.1 JATORRI ATZERITARREKO BIZTANLEEN EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Jatorri atzeritarreko biztanleak 47.029 dira Araban; populazio osoaren % 14,1; 2017 eta 2020 urte bitartean, % 12,1etik % 14,1era pasa da, 7.000 lagunetik gora gehiago errolatu baitira bertako udalerrietan, 2020ko EUSTATEk eskainitako datuen arabera.

- Jatorri atzeritarreko biztanleriaren bilakaera goranzkoa da nabarmen: 2000. eta 2020. urte bitartean 40.000 biztanle baino gehiagoko gehikuntza izan da, alegia, biztanleria osoaren % 2,2tik % 14,1era igaro da.
- Eskualdez eskualde, proportzio hori aldatu egiten da: jatorria atzerrian duten biztanle gehien Arabako Lautadan kokatzen da¹³, hots, Gasteiz hiriburuaren eskualdean. Bertan, biztanleria osoarekiko % 14,4ko pisua dute; presentzia txikiena nabari da, berriz, Arabako Mendialdean, Arabako Ibarretan eta Gorbeia Inguruko eskualdean (% 7,6koa).
- Emakumezkoen etorrera hazi egin da 2016. urtetik aurrera. Gaur egun jatorri atzeritarreko biztanleriaren artean ia mila emakume gehiago dira gizonezkoak baino (23.974 emakume, 23.055 gizonezko). Baino desberdintasun nabarmenak daude jatorriaren arabera: Amerikar jatorria duen biztanleriaren artean 3.206 emakume gehiago dira gizonezkoak baino; aldiz, Afrika, Asia eta Europa jatorria dutenen artean, gizonak gehiago dira nabarmen, emakumezkoak baino: Afrikatik 1.800 gizon baino gehiago, 400 baino gehiago Asiatik datozenen artean eta 300 gizonezko gehiago European jatorria dutenen artean.
- Arabako biztanleriaren artean 0-16 urte bitarteko artean % 86,6 Espainiar jatorrikoak dira eta % 13,7 jatorri atzeritarrekoak. Ehuneko hori ordea, nabarmen igotzen da 17-24 urte bitarteko artean (% 22,3) eta 25-44 artekoan dagonera hurbiltzen da (% 22,6). Aldiz, 45-64 eta 65 urtetik gorako ehunekoak txikiagoak dira: % 10,7 eta % 2,2, hurrenez hurren.
- 20 jatorri-estatutan du jatorria jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 81ak. Biztanle horien hizkuntzak dira Araban 500 hiztun baino gehiago izan ditzaketen hizkuntza berriak; zehazki, ondoren aipatzen dira.

¹³ Eskualde-mailako datuen azterketa EUSTATEk eskainitako 2019ko datuetan oinarritzen da, metodologiaren atalean aipatu bezala.

7.2 ARABAKO HIZKUNTZA-KOMUNITATEAK

Egindako azterketaren ondorioz nabarmendu behar da 20 jatorri-estatutako biztanleen hizkuntzak pisu berezia dutela, horietako biztanle-kopuruak 500 baino gehiagokoak baitira. Era berean, badira biztanle-kopuru txikiagoa duten 140tik gora jatorri-estatu, eta, beraz, biztanle horien hizkuntzek osatzen dute Arabako hiztun-kopuru txikiko hizkuntza-aniztasun handia. Horrez gain, Espainiar Estatuko beste Autonomia Erkidegoetan ofizial-kide diren beste hizkuntzen hiztunen datuak ere aintzat hartu behar dira, hain zuzen ere, erkidego horietan jaio eta Arabara bizitzera etorri direnen hizkuntza-aniztasuna.

Ondoren zehazten diren hizkuntza-komunitate nagusiek 500 hiztun baino gehiagoko taldeak osatzen dituzte:

- **Arabiera, amazigera** (jatorria Marokon edota Aljerian): immigrazioko populazioaren % 22,9 osatzen dute (10.092 lagun). Arabako eskualde guztietan nabarmendu behar da euren presentzia. Kopuru absolutuetan, Arabako Lautadan kokatzen dira biztanle gehien, baina, ehunekotan, esanguratsua da Errioxa Arabarrean duten presentzia (% 46,9). Hain zuzen, Arabako Errioxan eta Arabako Ibarretan jatorri atzeritarreko biztanleen artean, dentsitate handieneko komunitatea da.

Kontuan izan behar da, bestalde, Marokoko eta Aljeriako jatorria duten biztanle gehienek frantsesez ere hitz egiten dutela, jatorri-estatu horietako gizartean oro har, eta, bereziki, hezkuntza-sisteman duen presentzia handiagatik.

- **Portugesak** (Portugal eta Brasil) jatorri atzeritarra duten biztanleen % 3,5 eta % 3,3 hurrenez hurren; 3.000 biztanle inguru guztira. Kopuru absolutuetan, Arabako Lautadan kokatzen dira biztanle gehien, baina, proportzionalki, esanguratsua da Arabako Ibarrek (% 23,2) eta Errioxa Arabarra (% 18,3) eskualdeetan hartzen duten pisua.
- **Jorubera, igboera, hausa, fula eta ingelesa ...** Nigerian jatorria dutenak: 2.000 lagun inguru. Arabako Lautadan bizi da komunitatearen gehiengoa (10etik 9), baina Kantauri Arabarra eskualdean ia 30 laguneko komunitatea dago.

Nigeriako hizkuntzen artean nagusiak diren lau hizkuntza horiez gain, hizkuntza-aniztasun oso handia dago bertan, eta, beraz, jatorri horretako biztanleek hizkuntza gehiago hitz egin dezakete. Kontuan izan behar da, bestalde, ingelesa hizkuntza ofiziala dela Nigerian, eta beraz, jatorri horretako biztanle gehienek hizkuntza horretan hitz egiten dutela.

- **Errumaniera** (Errumania jatorria), jatorri atzeritarreko biztanleriaren % 6,8; 2.000 lagun inguru. Horietatik hiru laurden baino gehiago Arabako Lautadan bizi da. Dena den, Kantauri Arabarra eta Errioxa Arabarra eskualdeetan, 180 eta 110 lagun inguruko komunitateak daude, hurrenez hurren.

Urduera, punjabera eta ingelesa hitz egiten dute, oro har, Pakistanen jatorria duten biztanleek: urduera eta ingelesa estatuko hizkuntza ofizialak direlako Pakistanen, eta punjabera, Punjab eskualdeko biztanleak direlako, gehienbat, EAEn eta, zehazki, Araban bizi diren pakistandarrak. Araban, 1.687 biztanle dira, bereziki, Arabako Lautadan bizi direnak.

- **Mandarin txinera eta kantonera:** Txinan jatorria duten 1.000 pertsona inguru. Komunitate hau ere Arabako Lautadan kokatzen da, nagusiki (10etik 9). Kantauri Arabarra eskualdean, ordea, 50 lagun inguruko komunitatea dago.
- **Frantsesez hitz egiten dute** Frantziar jatorria duten 700 biztanleek. Horrez gain, ordea beste hizkuntza gutxituak ere hitz egin dezake, esate baterako, bretoiera, okzitania, alemana, korsikera, edota euskara.

Gogoan izan behar da, bestalde, Afrikako zenbait lurraldetan jatorria duten biztanle ugari ere frantsesez hitz egiten dutela jatorri-estatu horietan ofiziala delako. Hala gertatzen da, esate baterako ondoko estatu hauetan: Kongo, Boli Kosta, Benin, Burkina Faso, Burundi, Ekuatore Ginea, Gabon, Ginea, Mali, Senegal, Togo, eta Txad. Horrez gain, ofiziala izan ez arren, presentzia soziala oso handia den Marokoko eta Aljeriako jatorriko biztanleek ere hitz egin ohi dute hizkuntza horretan.

Era berean, Europako beste estatu batzuetan ere ofiziala da frantsesa bere lurralde osoan edo parte batean (Monako, Suitza, Belgika, Andorra).

Frantziako jatorria duen biztanleen gehiengo nabarmena Arabako Lautadan bizi da (10etik 8, 600 lagun inguru), baina Kantauri Arabarra eskualdean 50 lagun inguruko komunitatea dago.

- **Ukraineraz** hitz egiten dute jatorria Ukrainer jatorria duten 588 biztanleek. Horietatik 550 lagun Arabako Lautadan bizi dira; gainerako eskualdeetan oso txikia da komunitate honen presentzia, absolutuetan nahiz ehunekotan.
- **Wolofera, fula, serere, jola, mandinka... eta frantsesa** Senegalen jatorria dutenak: 531 biztanle. Kontuan izan behar da herrialde horretan frantsesaz gain (hizkuntza ofiziala) bertako 20 hizkuntza inguru daudela, eta beraz, jatorri horretako biztanleen artean hizkuntza-aniztasuna are eta handiagoa izan daitekeela

Senegal jatorriko biztanle gehienak (508 lagun; % 95,7) Arabako Lautadan bizi dira; gainerako eskualdeetan oso txikia da komunitate honen presentzia, absolutuetan nahiz ehunekotan.

- Hitzun-kopuru nahiko handiko hizkuntza horiez gain, beste 140 hizkuntza inguru hitz egin daitezke, Arabako biztanleen jatorria askotarikoa baita. Hizkuntza horien artean daude, besteak beste, Europako hizkuntza ofizialak (alemana, errusiera,

italiera, ukrainera, georgiera, moldaviera, poloniera, bulgariera, bielorrusiera, suediera, albaniera, greziera, lituaniera, txekiera, hungariera, armeniera, serbiera, daniera, norvegiera, finlandiera, kroaziera, letoniera, eslovenia, azerbaijanera...), eta ez ofizialak (erromantxea, flandesera, frisia, galesera edota eskoziako edo irlandako gaelikoa, besteak beste); Amerikan jatorria duten guarania, kitxua, ketxua, aimara, ingelesa, náhuatl, mapudungun; Afrikatik etorri diren kikongo, lingala, swahili, fula, soninkera, wolofera, amarhera, sothoera, swaziera, jorubera, igboera, fula, bubiera, sekiera, soninkera, moorea, diolera, akanera, fang, bubiera, kombo, lingala, mandinkera, pulaarera, besteak beste. Asiatik nepalera, bengalera, indi, asamera, bodoera, vietnamera, japoniera, indonesiera, kazakhera, persiera, paxtunera, mongoliera, Malaysiera, besteak beste, eta Ozeanitik Maoriera, fijiera, tagalo, samoera...

Jatorri-dibertsitate hori, espero bezala, bereziki handia da Arabako Lautada eskualdean, baina gainerako eskualdeetan ere nabarmenezkoa da; izan ere, jatorri-estatu kopuru gutxien dituen eskualdean ere 45etik gora dira biztanleen jatorrizko estatuak.

- Bestalde, aintzat hartzekoak dira jatorria Galizian duten 5.000 lagunetik gora eta jatorria Katalunia, Valentzia edota Balear Uharteetan duten ia 2.800 biztanle. Izan ere, pentsatzekoa da galizierak eta katalanak ere presentzia esanguratsua izan dezaketela Araban.
- Jatorri-estatuan gaztelania ofiziala duten Arabako biztanleek % 36,8 osatzen dute. Arabako Lautada eta Kantauri Arabarra eskualdeetan portzentaje hori zertxobait igotzen da (% 38,0 eta % 37,8 hurrenez hurren). Errioxa Arabarra eta Arabako Ibarrek eskualdeetan, ordea, nabarmen jaisten da portzentaje hori (% 12,2 eta % 24,1 hurrenez hurren).

7.3 AZKEN HAUSNARKETA. ETORKIZUNeko ERRONKA

Txosten honetan *Arabako Hizkuntza-aniztasunaren mapa, immigrazioko biztanleriaren arabera hurbilketa* egin da. Gogoratu behar da, ikerketaren diseinuan bertan euskararen, gaztelaniaren eta ingelesaren presentziaren azterketa saihestu dela, lehen bi kasuetan hizkuntza ofizial-kideak izanik EAEn, eta ingelesak, hezkuntza-sistema formalean eta ez formalean pisu esanguratsua duelako, tratamendu berezitua eskatzen dutelako.

Hizkuntza-aniztasunerako hurbilketa egin dugula diogu gaur egun ez dagoelako, metodologia atalean zehaztu den bezala, biztanleriaren hizkuntza-datu zehatzak biltzen dituen prozedura formal edo protokolikorik, EUSTAT-ek euskarari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain. Ondorioz, ez dago ziurtasunez jakiterik Arabako biztanleek zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Galdera horri erantzuteko, beraz, ikerketa kualitatiboak edo datu-bilketa sistematikoak ezinbestekoak dira. Ikerketa horiek egin bitartean, eskuragarri dauden datuek hizkuntza-aniztasunaren fenomenora hurbiltzea, soilik hipotesi-mailan ahalbidetzen dute, eta hala egin da, esan bezala, txosten honetan. Gogora ekarri behar da, hala, lan honetan erabilitako datuen iturri nagusia EUSTATEk argitaratzen duen *Biztanleriaren udal-errola* izan dela.

Iturri horretako jatorri atzeritarreko biztanleriaren¹⁴ jatorriaren datuak aztertuz, ondoren zehaztuko diren hipotesietan oinarrituta hizkuntza-aniztasunaren inguruko presentzia aurreikusi da. Ikerketan planteatu diren hipotesiak ondorengoak dira:

- Jatorri atzeritarreko biztanleek jatorri-estatuak hizkuntza ofizialak hitz egiten d(it)u(z)te.
 - Espero izatekoa da hizkuntza ofizial horretan¹⁵ hitz egingo dutela, jatorrizko hizkuntza beste bat(zuk) d(it)u(z)tenen kasuetan ere. Baina, era berean esan behar da, ez dela beti horrela izaten, biztanle guztiek ez baitute beti estatuaren hizkuntza ofiziala hitz egiten.
- Jatorrizko herrialdeetan hizkuntza ofizialez gain hitz egin de(it)zaketen hizkuntza(k) ere identifikatu behar d(ir)a.
 - Hizkuntza horien identifikazioan, dagoeneko hizkuntzen presentzia dokumentatuta dituzten hizkuntzak hartu dira kontuan¹⁶.
- Horrez gain, jatorri atzeritarreko biztanleei erreparatzeaz gain, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat hitz egin dezaketen Espainiako beste Autonomia Erkidegoetako biztanleen hizkuntzak ere kontuan izango dira.

Hipotesi horietan oinarrituta egin da, beraz, *Arabako hizkuntzen mapa*, esan bezala, *hizkuntza-aniztasunerako hipotesi-mailako hurbilketa bat*. Beraz, garrantzi berezia du hipotesi horiek baieztatu edo zuzenduko dituen ikerketak egitea. Alde batetik, interesgarria litzateke euskararen eta gaztelaniaren kasuan egiten den moduan, EUSTATEk Demografia Inkestan edo Biztanleriaren eta Etxebizitaren Zentsuan gainerako hizkuntzen inguruko oinarrizko informazioa biltzeko galderak integratzea. Eta aldi berean, oso inportantea litzateke ikerketa kualitatibo zabalak egitea, aurreikusitako hizkuntzen presentzia sakonago ezagutzeko. Bestelakoan, hemen marraztu den *Arabako hizkuntzen mapa* proposatutako hizkuntzen banaketa geografikoa soilik hipotesi-mailan geratuko litzateke. Etorkizuneko erronka garrantzizkoa izan daiteke hori zalantzarik gabe.

¹⁴ Jatorri atzeritarreko biztanleria hiru ezaugarri hauetakoren bat dituzten biztanleek osatzen dute: a) *Espainian jaio eta atzeritarra*¹⁴ izatea; b) *atzerrian jaio eta espainiarra*, eta c) *atzerrian jaio eta atzeritarra* izatea

¹⁵ Estatu askotan hizkuntza ofizial bat baino gehiago dago, eta euren presentzia lurraldean ez da ezinbestean homogenea. Beraz, jatorri lurralde bakoitzaren ezaugarri soziolinguistikoen arabera hitz egingo dute hizkuntza batzuk edo beste batzuk Arabara etorritako biztanleek.

¹⁶ Uranga et al. 2008, Ikuspegi 2015, Topagunea 2016, Emakunde 2018, ...

BIBLIOGRAFIA

- Ahotsak.eus. 2016. *101 ELE Lenguas Langues Languages*. Eibar. <https://101l.ahotsak.eus/hizkuntzak/>.
- Aierdi, Xabier, eta Belen Uranga. 2018. «Gipuzkoako Hizkuntza-aniztasunaren mapa. Azterketa eta proposamenak». Soziolinguistika Klusterra.
- Barquín, Amelia, Monika Madinabeitia, eta Nerea Alzola. 2012. «EAEko emakume etorkinak eta hezkuntza». In *Atzerriko emakume etorkinak EAEn*. Bilbo: Emakunde. https://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_informes/es_emakunde/adjuntos/informe-31_mujeres_inmigrantes.pdf.
- Oleaga, José Antonio. 2012. «EAEn bizi diren atzerriko emakume etorkinen tipologia ezartzeko bidean». In *Atzerriko emakume etorkinak EAEn*, 173–91. Gasteiz: Emakunde.
- Shershneva, Julia, eta Iraide Fernández Aragón. 2017. «Familiak eta aniztasuna Euskadin (0-25 urte)». In *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak*, 723–96. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua-Ikuspegi. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P3_CAP3_familiaEUS.pdf.
- Uranga, Belen, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Andoni Barreña, eta Ane Ortega. 2008. *Hizkuntzak eta Immigrazioa. Lenguas e Inmigración*. Bilbo: Ikuspegi, Amarauna - UNESCO Etxea.

ERANSKINA. BIZTANLERIAREN JATORRIA. ESKUALDEAK ETA UDALERRIAK. ARABA 2019

	Espainiar estatuan jatorria	Jatorri atzer.	GUZTIRA	Jatorri atzer. biztanleri a orokorrrar ekiko %	Arabiera eta Tamazigh t (Maroko eta Aljeria)	Portuges(Portugal eta Brasil)	Yoruba, Igboera, Hausa...(Nigeria)	Errumani era (Erruman ia)	Urdu, Punjaber a...(Pakist an)	Mandarin era, kantoner a...(Txina)	Frantses.. (Frantzia)	Ukrainera ... (Ukraina)	Wolof, fula, serre... (Senegal)	Gaztelani a ofizial jatorrian	Gainerak o jatorri atzerritar reko biztanleri a
ARABA	287.330	44.219	331.549	13,3	10.092	3.009	2.019	1.713	1.687	1.089	706	588	531	16.271	
Arabako Ibarak	5.072	556	5.628	9,9	161	129	4	20	0	5	16	6	6	134	75
Añana	139	17	156	10,9	16	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0
Armiñón	215	12	227	5,3	2	5	0	0	0	0	1	0	0	3	1
Berantevilla	415	38	453	8,4	13	8	0	1	0	0	0	0	0	8	8
Erriberabeitia	1.164	186	1.350	13,8	70	56	0	6	0	4	3	0	0	28	19
Erriberagoiria	730	55	785	7,0	9	10	0	3	0	0	1	1	0	22	9
Gaubea	897	99	996	9,9	12	22	0	7	0	0	3	3	0	40	12
Kuartango	352	24	376	6,4	11	1	0	3	0	1	1	1	0	5	1
Lantarón	798	77	875	8,8	4	24	4	0	0	0	6	1	6	19	13
Zambrana	362	48	410	11,7	24	3	0	0	0	0	1	0	0	8	12
Arabako Lautada	229.968	38.646	268.614	14,4	8.153	2.375	1.981	1.339	1.566	1.014	606	549	508	14.672	5.883
Agurain	4.309	753	5.062	14,9	321	18	16	36	118	11	9	1	14	104	105
Arratzu-Ubarrundia	924	56	980	5,7	20	9	0	2	0	0	2	1	0	19	3
Asparrena	1.443	171	1.614	10,6	87	6	0	24	0	0	2	0	3	40	9
Barrundia	822	61	883	6,9	2	5	0	7	2	1	2	1	0	14	27
Burgu	553	46	599	7,7	9	19	0	2	0	3	1	1	1	6	4
Donemiliaga	686	29	715	4,1	3	8	0	4	0	0	1	2	0	6	5
Dulantzi	2.518	358	2.876	12,4	161	45	7	8	8	1	9	0	0	78	41

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

	Espainiar estatuan jatorria	Jatorri atzer.	GUZTIRA	Jatorri atzer. biztanleri a orokorrrar ekiko %	Arabiera eta Tamazigh t (Maroko eta Aljeria)	Portuges(Portugal eta Brasil)	Yoruba, Igboera, Hausa...(Nigeria)	Errumani era (Erruman ia)	Urdu, Punjaber a...(Pakist an)	Mandarin era, kantoner a...(Txina)	Frantses.. (Frantzia)	Ukrainera ... (Ukraina)	Wolof, fula, serre... (Senegal)	Gaztelani a ofizial jatorrian	Gainerak o jatorri atzerritar reko biztanleri a
Gasteiz	215.000	36.774	251.774	14,6	7.427	2.212	1.952	1.226	1.436	996	571	537	489	14.307	5.621
Iruña Oka	3.043	368	3.411	10,8	123	46	6	30	2	2	5	6	1	88	59
Iruraiz-Gauna	496	21	517	4,1	0	6	0	0	0	0	2	0	0	7	6
Zalduondo	174	9	183	4,9	0	1	0	0	0	0	2	0	0	3	3
Arabako Mendialdea	2.680	219	2.899	7,6	70	14	0	16	6	0	4	0	1	74	34
Arraia-Maeztu	674	52	726	7,2	9	4	0	8	3	0	1	0	0	21	6
Bernedo	461	33	494	6,7	10	3	0	0	2	0	0	0	0	14	4
Harana	215	6	221	2,7	1	0	0	0	0	0	0	0	0	3	2
Kanpezu	928	112	1.040	10,8	48	6	0	7	1	0	2	0	1	28	19
Lagran	152	5	157	3,2	2	0	0	0	0	0	0	0	0	3	0
Urizaharra	250	11	261	4,2	0	1	0	1	0	0	1	0	0	5	3
Errioxa Arabarra	9.693	1.508	11.201	13,5	708	276	1	113	69	6	12	4	6	184	129
Bastida	1.264	188	1.452	12,9	94	37	1	4	1	1	2	0	2	33	13
Bilar	300	33	333	9,9	5	13	0	4	0	0	0	2	0	8	1
Ekora	229	39	268	14,6	18	20	0	0	0	0	0	0	0	1	0
Eltziego	917	88	1.005	8,8	29	24	0	20	0	1	0	0	0	2	12
Guardia	1.313	5	1.318	0,4	0	2	0	2	0	0	0	0	0	0	1
Kripan	175	120	295	40,7	71	13	0	13	0	0	0	1	0	13	9
Lantziego	552	139	691	20,1	87	23	0	2	6	0	1	0	0	8	12
Lapuebla de Labarca	745	181	926	19,5	81	18	0	27	0	4	2	0	2	13	34
Leza	174	29	203	14,3	6	9	0	0	0	0	0	0	0	11	3
Mañueta	239	52	291	17,9	4	36	0	5	0	0	2	0	0	1	4
Moreda Araba	204	17	221	7,7	10	1	0	0	0	0	0	0	0	5	1

ARABAKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN MAPA

Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren arabera hurbilketa

	Espainiar estatuan jatorria	Jatorri atzer.	GUZTIRA	Jatorri atzer. biztanleri a orokorrar ekiko %	Arabiera eta Tamazigh t (Maroko eta Aljeria)	Portuges(Portugal eta Brasil)	Yoruba, Igboera, Hausa...(Nigeria)	Errumani era (Erruman ia)	Urdu, Punjaber a...(Pakist an)	Mandarin era, kantoner a... (Txina)	Frantses.. (Frantzia)	Ukrainera ... (Ukraina)	Wolof, fula, serre... (Senegal)	Gaztelani a ofizial jatorrian	Gainerak o jatorri atzerritar reko biztanleri a
Navaridas	170	30	200	15,0	2	25	0	0	0	0	0	0	0	2	1
Oion	2.854	532	3.386	15,7	300	24	0	34	62	0	5	0	2	73	32
Samaniego	293	23	316	7,3	1	13	0	2	0	0	0	0	0	6	1
Villabuena de Álava/Eskuernaga	264	32	296	10,8	0	18	0	0	0	0	0	1	0	8	5
Gorbeia Inguruak	8.104	668	8.772	7,6	159	69	6	39	13	11	20	10	5	216	120
Aramaio	1.412	55	1.467	3,7	8	4	0	0	9	0	2	2	0	23	7
Legutiano	1.648	237	1.885	12,6	92	26	6	8	0	1	4	1	1	69	29
Urkabustaiz	1.219	152	1.371	11,1	41	17	0	16	0	0	2	2	4	35	35
Zigoitia	1.661	86	1.747	4,9	7	9	0	2	3	8	7	1	0	36	13
Zuia	2.164	138	2.302	6,0	11	13	0	13	1	2	5	4	0	53	36
Kantauri Arabarra	31.813	2.622	34.435	7,6	841	146	27	186	33	53	48	19	5	991	273
Aiara	2.873	101	2.974	3,4	7	17	0	7	0	0	9	0	0	48	13
Amurrio	9.372	978	10.350	9,4	338	41	12	138	4	11	10	14	1	332	77
Artziniega	1.675	146	1.821	8,0	68	7	3	8	0	1	3	0	1	34	21
Laudio	16.793	1.309	18.102	7,2	410	75	9	29	29	41	25	2	3	541	145
Okondo	1.100	88	1.188	7,4	18	6	3	4	0	0	1	3	0	36	17